



TXOMIN GARMENDIA

ERRIRIK - ERRI

ERRIRIK-ERRI

AUSPOA LIBURUTEGIA
(177)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 - Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

TXOMIN GARMENDIA

ERRIRIK - ERRI

Auspoa Liburutegia
1984

**Azalean: Berastegi, liburu ontan aitatzen dan
lenengo erria.**

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Guipúzcoa)
Fotokonposatzalle: Cometip, S.L., Barañain-Pamplona
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
ISBN 84-7158-121-3
Depósito Legal: NA. 1.259-1984

ARKIBIDEA

| | |
|-----------------------------------|----|
| Itzaurrea | 9 |
| Uraldeak..... | 13 |
| Berastegi..... | 17 |
| Dinamarca'ko ibillaldia | 21 |
| Usoak..... | 37 |
| Zugarramurdi..... | 41 |
| Eiztariak | 45 |
| Iritzi ezberdiñak..... | 49 |
| Errotak..... | 53 |
| Pelotazaleen jardunak | 57 |
| Uste gabekoa | 61 |
| Billuzkeria..... | 65 |
| Donosti'ko parte zarra | 69 |
| Esker onez..... | 73 |
| Igaratza | 77 |
| Eiztariak asarre..... | 81 |
| Tolosa'ko ganadu-txapelketa | 85 |
| Aizkolari-txapelketa | 89 |
| San Simon eta Juda | 93 |
| Esaera zarrak | 97 |

| | |
|------------------------------|-----|
| Agur betiko | 101 |
| Aurrerapenaren okerrak | 115 |
| Zerri iltzea | 109 |
| Kinto-billerak | 113 |
| Euskal kirolak | 117 |
| Perretxikoak | 121 |
| Iñauteriak | 125 |
| Ibillaldi bat | 129 |
| Oñati..... | 133 |
| Gau-eskolak | 137 |
| Zugaitzak | 141 |
| Euskaldunen bizimoduak | 145 |
| Artzaiak..... | 149 |
| San Isidro Eguna | 153 |

ITZAURREA

Txarrik ez dala zerbait onik ez dunik, dio Txomin Garmendia'k liburu ontan, esaera zar bat aitatzuz. Berarekin ere orixe gertatu dala esan genezake.

Orain urte batzuk, etzun berak pentsatuko, ezta beste inork ere, denbora asko gabe euskal idazle biurtu bear zunik. Zer dala-ta aldaketa ori? Artarako gaia, Txomiñek betidanik eukiko zun berekin. Bañan doai ori izkutuan eta estalita zegon. Ta etzan illunpetik atera ta argitara azalduko, kamioan ezbear latz ura izan ez balu.

Klinikako egonaldi luze ta oñazetsuak pasa ondoren, etxean egon bearreko egun aspergariak etorri ziranean, denbora zerbaitekin bete bear, eta *denbora pasa*—ortik bere lenengo liburuaren izenburua— idazteari ekin zion. Ta, eman zitun frutuak euskal jendearen gustokoak zirala ikusirik, are ta gogo geiagorekin bere langintza berri ortan segi.

Dagoneko, lau liburu ditu idatzi ta plazara-tuak: danak erri-izkera gozo, bizi ta jatorraren eredu eta ixpillu, eta danak *Auspoa* liburutegi ontan argia ikusiak, 159, 160, 170 ta 171 zenbakietan. Bosgarrena, berriz, onako au, egur bereko ezpala ta bide beretik datorrena.

Ezbear orrek, beraz, ondorio gogorak ekarri zizkion berari. Onak, ordea, Euskalerrari. Izan ere, ordurarte erriaren alde bertsoen bidez bakarrik alegintzen zana, arrezkeroz lumarekin ere serbitzen du.

Jaungoikoak lerro okerretan zuzen idazten badakila, dio erdal esaera batek. Ala gertatu da Txomiñekin ere, gu danon onerako. Ta badakit au esatearekin ez dala bera minduko; bere ezbear ura eramangarriagoa egingo zaiola baizik.

1983'ko Agorraren 14'an agertu zan Txomin Garmendia'ren lenengo idazlana *El Diario Vasco*'n. Geroztik luma gogotik dantzatu du ta beraren artikuluak sarritan azaldu dira egunkari ortan.

Idazlan oien bilduma eskeintzen diogu gaur irakurleari. Bañan ez danak, lenengotik asi ta *Auspoa*'ren liburu bat bete artekoak baizik, kanpoan gelditu diranak beste baterako utziz.

Gure erri-literaturan, izan ere, barrutiak ez daude berdin banatuak. Bertsolaritzak oso eremu zabalak artu ditun bitartean, prosa txoko estu batean bizi da, bertsoak ainbat leku bear zularik.

Orain urte batzuk, Salaberria, Uztapide, Erauskin, Irazusta, Alkain, Arrizabalo, Garmendia bera ta abarren *narrativa* edo kontaerai

esker, erri-prosa ori piztu egin dala esan diteke. Piztu ez-ezik, urte gutxiren buruan frutu onik eta ugaririk eman ere bai.

Bañan prosa orrek ez derizkiot or bukatu bear dunik. Eremu berrietan sartuko balitz, obe. Ta eremu oietako bat, egunkaria da. Erri-periodismo baten premian gaudela esan nai nuke; erriak egunerokoetan ere bere iritziak, burutapenak eta albisteak agertu bear ditula, alegia.

Orain artean, olakorik oso gutxitan ikusi da. Jende eskolatuak, erri-erria ez geranok alegia, erriari eman oi dizkiogu geren ustez eman bear zaizkionak, eta guk derizkiogun euskeraz gaiñera. Ta erriak onartzen ez baditu, erriak muzin egiten badigu, orduan erria da eosgogorra ta erru guztiak dituna. Orrek, ez dakit, bada, diktadura-usai pizarren bat ez ote dun.

Ez det onekin esan nai, egunkarietan jende eskolatuaren lanik bear ez degunik. Bañan olertiz gaiñera bertsolaritza ere or degun bezela, jende ikasiaren periodismoa ez-ezik, erri-periodismo bat ere bear genduke.

Alegia, erriak berak lana egin dezala, berak nai dun euskeraz eta derizkion gaiakin. Euskera iñork salbatzekotan, erriak salbatuko baitu. Bañan erria xuxpertzen ez bada ta lanari ekiten ez badio, alper-alperrik izango dira beste egiñal guztiak.

Liburu onek, berriz, orixe erakutsi nai du: erria ere gauza dala periodismo-alorrek jorratzeko. Ta ala, bestela ditun balioak alde batera utzita ere, bigarren meritu bat beiñepein aitortu

bear zaio: erriari bide berri bat irikitzen diola. Izan ere, Txomiñek egin duna, beste zenbaitek ere egin dezakete, naiz-ta bertsolari ez izan.

Egiten ez badute, erreztasuna eman etzaie-lako izan diteke. Bearbada, bidea legundu bea-rrean, zakartu egin diegulako.

Trabarik nagusienetako bat, beren euskera egunkarietan gutxitan ikustea ez ote da izango? Ikusten ez baitute, ez dute idazten; eta idazten ez badute, ez da beren euskera ez or ta ez beste iñun ikusten. Korapillo trinko ori ez da gaur goizekoa; bañan bai euskeraren kaltekoa.

Txomin Garmendia'ren liburu au, bearba-da, gure erri-gizon batek periodikoetan idatzita-ko lanez osatu dan lenengoa izango da. Guk, beintzat ez dakigu euskeraz olakorik besterik badagon. Bañan ez genduke nai, iñola ere, az-kenengoa izan dedin.

A.Z.

Erririk-erri

URALDEAK

Izango da nereba baño luma azkarragorik berri auk emateko. Ala ere zerbait jarri dezadan.

Sua ta ura belaunez beera bear zirala esan zunak, bazekin zerbait.

Euskalerrian lur-ikaraz ez degu kastigurik. Beste bi oiekin, ordea, badegu eskarmenturik asko. Lengoak gutxi balira bezela, oraingo onek atera gaitu dudatik.

Agoztuaren 26'an etzun nai orduko eguna zabaldu. Ez orixe! Zer zan ura? Kamio, mendiko bide edo pista, etxe asko ere bai, uraren mende. Bera jaun da jabe bazter guztietan.

Sarri au gogoratzen zitzaidan: badegula oraintxe aurrerapena, indarra ta arrokeria. Gerok gerala uste degu munduko jaun da jabe. Ta ordu batzutako euri-zaparrada naikoa degu, sinismena degunak, Jaungoikoari otoitzean aste-ko. Ortik pentsatu zer geran.

Bide bat zabaldu bear dalako metro bat terreno bear dutela ta asarre bizian jartzen gera,

eman nai ezik. Beste bati tratorea pasatzen ez diogu utziko geren terrenotik, bi besakada belar ondatzen dizkigulako. Ta ainbat lur kendu, ainbat bide puskatu, ainbat kalte egin digun denboraleari nork egin dio alto? Ondo pentsatzen jarri ezkerro, eskasak gera gizonak.

Nere iritzi apalean, ezbear auek badute alderdi on bat ere: naigabe-aldi auetan askoz geiago alkar maitatzen degu; umildu, biotz-beratu egiten gera. Estuasun auetan, asarre zeudenak adiskidetuak ezagutzen ditugu. Jaungoikoa badala esaten len zalantzan zeudenak ere bai.

Berak jakingo du zergatik bialtzen dizkigun onelako zigorrak. Aurrera ere egin bedi beraren borondatea. Ta il diranak izan bezate betiko zoriona.

Egia da ildakorik mundu ontan ez degula geiago ikusiko; egia da bizirik dauden askok bizi guztiko naigabea dutela; egia da Euskalerrian neurtu ezin alako kalteak dirala. Baña alkarri laguntzen badiogu, gauzak asko itxuratuko dira. Aurrera aterako gera. Badegu garai, alkar maitatzen asteko.

Gizaldi ontan iru uralde bildurgarri ezagutu ditugu oraingo onekin.

1933'an izan zan lenengoa. Korpusetan omen zan. Gure aita zanari amaika aldiz entzuna.

1953'koaz, berriz, ondo oroitzen naiz, emeretzi urte neuzkan-da. Etzan giro orduantxe ere.

Aurtengo ontan, berriz, leku batzuetan orduan baño aundiagoak. Gutxiagokoak ere badi-

ra, euria leku guztietan ez du berdin egiten-da.
Adibidez, bizkaitar senideak guk baño zigor
aundiagoa dute, eriotzak tartean dituztela.

Ainbat urteko lanan saria
uraldeak eraman du,
lapur gaiztoa gelditutzeko
ez da iñor e izandu.
Ordu gutxitan ainbeste erri
or zaizkigu alargundu,
eskertutzeko moduan gaude
iñork nai badu lagundu.

Lenago baju baldin bageunden,
jaunak, au da eraso!
Oraingo ontan nastu zaizkigu
lurra eta itxaso.
Lanaren bidez zuzendu bear
jarri zaigun arazoa,
lengora irixten izango degu
pixka bateko plazoa.

Arrosan billa saiatu arren
sarri gabiltz arantzetan,
zorionikan ez da izango
mundu ontako gauzetan.
Millaka milloi galdu dirade
uretan da lokatzetan,
da zer negarrak beren maiteak
palta dituzten etxetan!

Arro samarrak giñaden bañan
gaude umiltzen asiak,

alare pozik osasunakin
laguntzen badu biziak.
Euskadirentzat etorri dira
egun triste ta gaziak,
itxaropena bada ordea
Jaungoikoari graziak.

(El Diario Vasco, 1983-IX-14)

BERASTEGI

Negu luze samarra badu ere, udarako leku zoragarria degu. Nik esan bear banu, Gipuzkoa'ko mendi-erririk ederrenetakoa, Naparroa'ren mugan. Egoaizeak ere berari ematen dizkio lenengo besarkadak.

San Lorentzotan bertako jaiak. Aurten ere an izan gera, aurreko urteetan bezelaxe. Egun guztian izango ziran pesta alaiak. Baña ni geiena lilluratu ninduna, San Lorenzo bezperakoa izan zan: «Umetxoen eguna».

Goizeko amaiketan, errian duten kapillatxoan meza santua, jendez gañezkatuta. Eguardiko amabietan, Udaletxe aurreko enparantzan *angelus* errezatu ondoren, ogei ta bi neska-mutil koskorrek, amar urtetik beerakok, txistukonzierto bat eskeñi ziguten, apaiz zuzendari baten menpean.

Zuzendari onek olerki gisako lan bat irakurri zun. Izketaldiaren gaia: lenengo, euskeraren

sorrera ta berezitasunak; ta bigarren, aurtxo bat basarrian jaio ta alkate aukeratu zuten artekoa.

Apaiz onek dionez, Kristo baño amalau mila urte lenago itzegiten omen zan euskera. Gaurko izkuntza asko, noizbait galdutako izkuntzen umeak edo senideak omen dira. Gureak ez omen du orrelako kutsurik, bera bakarra izanik. Paris'en, izkuntza danak aitatzen ditun lauki edo kuadro batean, orixe adierazten omen da. Beraz, badegu maitatzeko motiborik, ain txoliñak ez bagiña...

Bigarren gaiarekin zer esan nai zun? Ba, basarrian gorde dirala oiturarik jatorrenak ta egitazko euskera. Gaur zer arriskutan gauden salatzen ere etzan bildurtu.

Ta ori dana, len aitatutako umetxoak txistuotsarekin uztartzen zutela.

Azkenean, *agur, jaunak* joaz amaitu zuten ain saio txalogarria. Biotzean zirrara egin zigun guraso ta gañontzeko askori.

Balkaltzera, arratsalderako pozetan joan giñan. Ez baitzan goizean bukatu dana. Goizeko artisten esku zegon arratsaldekoa ere.

Moro katuari jarritako bertsoak kantatu ziztuzten lenengo. Pulamentuz kantatu ere. Ondoren, dantza-soka atera zuten, da nola!

Jende larriak, lan bat ondo egiten dutenean, pozik txalotzen ditugu. Baña umetxoak diranean, da Berastegi'n bezela errikoak, doble grazi ematen digute. Orregatik gelditu giñan asko aitareнка.

Nork egin du mirari ori ain erri txiki politetan? Irakurleren batek onezkero asmatu du:

Don Txomin Jakakortajarena'k, laguntzalleak ditula, jakiña.

Apaiz argi bezin jakintsu onek, anai arteko gerra artan erbesteratu bearra izan zun, beste askoren artean. Orain iru urte etorri zan bere jaioterri Berastegi'ra, ez nagikerian egoteko, alajaña.

Jakintsu izatea ta lanerako gogoia izatea gauz bat da. Umetxoai erakusteko pazientzia artzeari ematen diot meritua. Ez du edozeñek balio.

Berastegi'tar askok ba ote dakite errian zer seme daukaten?

Argentina'ko Mones Casón'en egin ditu urte asko, ango apaizgintza bere esku zualarik. Azkena lurralde artan izan nintzanean, bixitatzeko zoria izan nun. Berastegi'ren tamañako erri bat da, Buenos Aires'tik irureun kilometrora, Pampa aldera.

Esan zigutenez, etzaukaten saltzeko beren apaiza. Kristau malla ez-ezik, bizi malla ere asko ondu omen zuten, Don Txomin zalako.

Txarrik ez dala zerbait onik ez dunik dio esaera zarrak. Ta gure arteko gerra zikin ura indio aientzat ondo etorria noski.

Umetxoen egun ortan, apaiz onen ondoan bazkaldu gendun. Jaten baño gustorago egon nintzan ari entzuten. Izan ere, eriotzaren igesi erbesteratu ta berrogei ta lau urte luze Prantzi, Uruguay ta Argentina'n igaro ditunak, derrior bear zer kontatua.

Gaur irurogei ta amalau urte dauzka, ta osasuntsu ta indarrean dago, Jaungoikoari eske-

rrak. Urte askotan gorde dezaigula, gure erriaren onerako.

Beste askoren artean, galdera au egin nion:

–Euskalerriratu ziñanean, zertan billatu zendun aldakuntzarik aundiena?

Etzun denbora askorik pasa erantzuten:

–Fedean.

Badakit gure artean gazte argiak badaudela. Baña ainbeste lan egin duten gizon zar jakintsu oiek, ezin gantzazke baztertu. Bestela, arroputz batzuk izango gera.

Pedro Mari Otaño'k bertso batean ziona datorkit gogora:

Miru gaixtoak menderatutzen
duan bezela usoa,
etzazutela galtzera utzi
gure euskera gaixoa.

(El Diario Vasco, 1983-IX-16)

DINAMARKA'KO IBILLALDIA

Garagarrillaren 27'an, astelenez, goizeko seiretarako, Donosti'ko Plaza Gipuzkoa'n bildu gera berrogei ta amasei lagun, autobus batean Dinamarca'raño joateko, Koxme Lizaso ta biok tarteko gerala.

Nor ziran besteak? Txoperra ta gidariak kendu ezkeru, basarritarrak; da jende gaztea geiena.

Nekazariak badaukate alkarte bat, *Lurgintza* deritzaiona. Eun basarritarretik gora daude. Badago jende argirik. Beren ogibidea beste edozeiñen mallan jarri nai luteke. Alaxe bear ere. Ori zan ibillaldi orren muiña.

Izan ere, badirudi basarritarra gizarte ontan azkenengo graduan dagola. Egia da Alemani, Holanda ta Dinamarca'ko ordeka zoragarriai kontra egiterik ez daukagula. Baña egia da, baita ere, ikasteko asko degula.

Dana geok dakigulakoan bizi bagera, arro astaputz batzuk besterik ez gera, ta ibili bearko

degu gabiltzan bezela. Zorionez, jendea argitzen asi da.

Garai batean erantzun errexa zegon: «Basarriak ez du ematen da kalera». Kalea ere estutu egin da, ordea, ta orain dira komeriak.

Bizitzaren ardatzean luzitu nai badegu, industri-gizonak eta gañontzekoak egiten dutena egin bear: aurrerapenik onenak inguratu, kanpoko jokabideak ikusi, ta azkenik alkartu, asarre eta txikikeriak utzita.

Adibidez, Alemani ta Prantzi alkarren kontra gerra bat baño geiagotan ibilitakoak dira ta gaur Merkatu Batuan daude. Baña goazen ibilaldira.

Goizeko sei t'erdietan erten gendun Donosti'tik, zortzi senar-emazte gazte, gañerakoak bakarkakoak, Gipuzkoa'ko ogei ta lau errititik osatuak.

Prantzi'ko Poitiers'era iritxi giñan bazkaltzera. Euskaldunai naiko gogor egiten zaizkigu gure erritik kanporako janari ta otordu oiek. Apetitu onekoak gera geienak eta gaitz erdi.

Arratsaldeko seiretarako Paris'en giñan. Emengo bixita itzultzerakoan egiteko utzi gendun.

Gaueko amaiketan iritxi zan Bruselas'era autobusa, bidean apaldu ondoren. Uri galanta eta Beljika'ko kapitala izan arren, ura ixiltasuna! Euskal errietan aiña gau-pasa ez da egingo, seguru asko.

Otel dotore batean lo egin da goizeko zazpi t'erdietan erten giñan Dinamarca'runtz, Gargarrillaren 28'an.

Emengo etxe, kale ta loreak ikusita, ametsetan jartzen da bat.

Lieja industri-erri bat da Bruselas'tik gertu, baña erreka garbiakin, gure ontan bezela...

Beljika txikia dalarik, bederatziak eta laurdenetan Alemani'ko lurretan giñan. Kolonia inguruan da autopista ondoan pagadi izugarriak daude. Ura edertasuna!

Bremen'en gendun bazkaria. Jatetxetik eriten giñanean, erbi bat atera zitzaigun ondoko jardinetatik poteka-poteka. Bazirudin euskaldunak sekulan ez gendula erbirik ikusi. Itxurak diranez, emen uri barruan ere eiza erruz dago.

Hamburgo'ren ingurutik pasa giñan. Nazio ontan, aurrez bagenekin da orain ikusi degunez, badago fabrika ugari. Ala ere, ango erreka eta bazterren edertasuna arrigarria da. Badaukaguz zer ikasi.

Garia ere dexente ikusten da Alemani'n. Ez dakit zertarako. Berrogei ta amasei lagunek bazkaltzeko atera zizkiguten ogiak, tripaki-errazio batekin euskaldun batek jan eziñik ez dauka. Ez daude gure antzera oituak.

Bei-talde ederrak ere ikusten dira, malkarrean amiltzeko arriskurik gabe. *Katepillar* edo *kutxare*-zaleak ez dute izango Euskalerrian aintzat lan.

Arratsaldeko zazpi t'erdietan Dinamarka zapaldu gendun. Ura begien zoramena! Bei-sail ikusgarriak aldika-aldika, danak larrean. Tarte-ka, basarriak. Baña ez emengoen antzekoak. Etxe-bizitza txalet dotore bat dute, ganadu-

estalpe edo ikulluak aldamenean dituztela, ta azkenengo aurrerapenez ornituak.

Kolding gendun gure ibillaldiaren muga, ta illuntzeko bederatzietarako iritxi giñan. Berrogei ta amar milla bizi-laguneko erria da.

Emen dago *Boviselect* etxea, mundu guztira ganadua bialtzeko antolatzen duana, bere zuzendari argiak. Gipuzkoa'ra ere iru milla bei iritxi dira azkenengo iru urteetan. Egun auetan bialduko dituzte eun ta ogei ta amar bat.

Etxe onek ordaintzen zun Dinamarka'ko egonaldia. Aurrera ere artu-emanak nai nunbait.

Kolding'en zai zegon *Boviselect*'ko ardura-duna. Otelean maletak utzi ta presaka apaltzera. Amaiketan altxa giñan jan-gelatik. Kaperik etziguten eman, berandu zalako. Inguruko tabernetan ere ez gendun billatu. Kaleko nagusi gu bakarrik. Olakorik!...

Emen egunezko bizimodua egiten du jendeak. Goizeko zazpiretan irikitzen dituzte dendak. Arratsaldeko bost eta erdietan itxi. Euskalerrian aña gau-txori ez da izango.

Orain, udaran, gauean ez du erabat illuntzen. Abenduan, berriz, goizeko bederatzietan eguna zabaltzen omen du, ta arratsaldeko iru t'erdietan illundu.

Lo gozo bat egin ondoren, 29'an, San Pedro egunez, abiatu giñan ikullu ta gañerakoak ikustera.

Lenengo, *Boviselect* etxeak esnea nola analizatzen dun ikusi gendun.

Ondoren, iltoki edo mataderi batean izan

giñan. Xira bana eta gorro bana jantzi arazi zizkiguten aurrena. Aiek garbitasunak eta aurrerapenak! Izan ere, jateko gauzak ez du gutxiago merezi.

Seireun bei astean botatzen dituzte, ta milla ta seireun txekor da gañerakoak. Euneko laro-gei (80 %) atzerrira bialtzen dute. Izan ere, ango industria aragia da. Bost milloi ta erdi bizi-lagun dauzka Dinamarka'k, isla edo ugarte askotan banatuak, da iru milloi bei.

Alemanak baño goraxeagoko bizi-malla omen daukate. Bada zerbait.

Ikullu zoragarririk da esne-bei ederrik ikusi gendun. Euskaldunak aña buru-auste gabe mantentzen dituzte. Egun guztian kanpoan -udaran jakiña-, ondo gobernatutako larretan.

Pentsua gabelan eman edo belardiak ongarritu berdintsu omen da probetxurako, ta azkenengo au askoz merkeagoa.

Batez beste, berrogei ta amabi bei dauzka basarritar bakoitzak, da irurogei bat ektarea lur.

Jaiotzen diran urritx danak aurrerako uzten dituzte. Zezen onaren aziakin umatu ta aurrera. Amerikano zezena ta bei danesaren kruzetik sortu omen zaizkie ondorenik onenak.

Urtean amabi milla litro esne ematen zun beia ere erakutsi ziguten. Baña ango bitartea sei millatik zazpi millara dago, gutxi gora-beera. Gipuzkoa'n, berriz, bi milla ta bosteunekoa dago beiko. Badago aldea.

Ango bei, biga ta zezenak beren kartilla daukate, ama, aita ta aurrekoak zein zitun da zen-

bat esne ematen zuten da gañerakoak jartzen ditula.

Artaraka, badakite biga batek zenbat esne emango dun lenen umealdian, bigarrengoan da abar.

Bei bat edo biga bat erosterakoan, ganaduari baño geiago erreparatzen zaio daukan kartillari.

Orain berrogei ta amar urte asi ziran saneamentu edo kanpaña egiten. Emen, berriz, orain gabilta ezetz ta baietz.

Europa'ko naziorik aurreratuena onela jokatuta bada, ez dago arrazoirik orren kontra itzegiteko.

Azkenengo berrogei urteetan, beterinarioak azia jarrita ernaritzen dituzte beiak. Beraz, oso atzetik goaz.

Bei ta txekor eun buruko basarri batean, nagusiak eta peoi batek egiten dituzte lan guztiak. Da langille orrek, beste edozein lanklasetan ari danak añako soldata irabazten du. Ori bai: ordu geixeago lanean pasa bear.

Emen iritxiko ote gera ortara? Ta, irixten ez bagera, errua nunbait badagola esan bear, goian edo bean.

Donosti'ko Atotxa bezin zelai, berriz, bazter guztiak. Erramolatxa egiten dute erruz. Gari pixka bat ere bai, baño urte askotan ez omen da eltzen.

Oso iparraldean dagon lurraldea danez, udaran ere otza nagusi, beroaren partez. Gurekin ere jerseak izan dute ixtimazioa.

Erregadioak, berriz, ugari daude. Lur azpi-

tik ateratzen dute ura. Metro batzuk zulatu ez-
kero, errex billatzen omen da.

Apaltzeko ordua iritxi zan da otelera arrima-
tu giñan, apal ondoren kalera ertetzeko trikitixa
joaz, Usurbil'ko gazte iaio bat gurekin baigen-
dun ibillaldia alaitzeko.

Jendea pranko esnatuko gendula iruditzen
zait. Ez dakit zer pentsatuko zuten. Leio batetik
txanponak ere bota zizkiguten. Ikusmiran ze-
biltzan turista batzuk ere asi zitzaizkigun salto-
ka. Alaitasuna danai gustatzen nunbait.

Illak 30, San Pedroren bigarrena. Goizetik
beste ikullu pamatu bat ikustera joan giñan.

Arretaz eta arduratsu erantzun ziguten egin-
dako galdera guztiai. Gure izkuntzak an zer egi-
ñik ez izan arren, oso ondo moldatu giñan, in-
terprete bat beti gurekin gendun-da.

Gu an geundela, beste autobus bat iritxi zan,
amerikanoz beteta. Esan zigutenez, aiek bialdu-
tako aziakin ernaritzen dituzte beiak; da zer
ondoren sortzen ziran ikusi egin nai azi-jabe
oiek.

Esnea nora saltzen duten? Dana zentral le-
txeretara. Pasterizatu gabeko esnerik ez omen
da saltzen Merkatu Batu guztian. Galerazia da-
go bestelako ori. Beraz, gure ontara ere, len-
txeago edo geroxeago, etorri litezke orrelako
aginduak.

Kolding'dik berrogei ta amar bat kilometro-
ra Herning dago. Urteko peri nagusia San Pe-
drotan egiten da. Denboraz zuzendu giñan

aruntza. Lau egun irauten, omen du billera orrek, da guri bigarreanean tokatu. Ganadusariak ere baziran ugari.

Zer zan ura? Gure begiak ezin litezke keجاتu. Izan dute zer ikusi.

Perian sartu orduko, liburu bana eman ziguten. An jartzen zun bei bakoitza nun zegon, zer kartil zeukan da abar. Etzegon nagusiari edo enkargatuari ezer galdetu bearrik, prezioa izan ezik. (Sal-erosketarako baño geiago da esposizio antzera peri au.) Asko zan beiak edo bigak zer numero zeukan ikusi. Ura liburuan billatu ta kito.

Ikusi genitun auntza baño askoz aundiago etziran beiak ere; baño esnetan da grasan aundientxoenaren pare.

Zaldi, beor, txerri, koneju, zer etzegon an? Karreratako zaldi batzuk zer prezio ote zeukaten?

Ogei ta zazpi illabeteko biga bat zegon, jende geiena zebillen leku batean. Alakoak ez dira dozenan amairu Dinamarca'n ere.

Geren artean eztabaidan asi giñan, batek irureun milla pezta balioko zitula, besteak besteun milla ere bai. Bere nagusiari galdetzeko modua egin gendun. Preziorik etzeukala erantzun zigun.

Ganaduz aparte, makinariz zer esan? Nik ez dakit munduan gosea nola egon liteken. Esate baterako, Argentina'n millaka ektarea daude plaza bezin zelai, oraindik kristuak ankik jarri gabeak. Lur emankorrek gañera. Makinaren aulkitik jetxi gabe sortu litezke gaur milloika

tonelada gari, arto ta abar. Bañan betikoa: gizonaren berekoikeria.

Periz ase giñanean, ostatu aundi batean bazkaldu ta parke edo *ciudad en miniatura* bat ikustera joan giñan. Badago bazterretan dirua ateratzeko modurik.

Aurreko gauetan lo egindako lekuan atsedendaldi bat artu ta goizean goiz Holanda'ra bidea artu gendun, Uztaillaren 1'an.

Dinamarka agurtu ta Alemani'n, aruntzakoan bazkaldu gendun leku berean, eguardiko otordua. Leku txukun da dotoreak badaude bazterretan, baña euskaldunentzako utzi Euskalerriko jatetxeak.

Illuntzeko bederatzietan iritxi giñan Amsterdam urira. Arrigarria da Holanda'ko lurralde au. Itxasoa baño beerago dago. Garai batean dana ur izango zan. Baña gizonaren lanak eta jakinduriak itxasoa atzean egoteko dike edo mendi koskorak altxa zituzten; da gaur, neurritik gora ura jarri ez dedin, bonba batzun bidez neurtzen dituzte.

Ia milloi bat bizi-lagun ditun uri onek, milla zubi ta eun kanal baño geiago omen dauzka, barkuak ibiltzen diranak asko.

Ibillaldi politik ere badaude ontzi oietan turistentzat preparatuta. Guk ere probatu gendun. Berreun bateko taldea bagiñan. Zenbat naziotakoak ote?

Agindu ziguten lekuan apaldu ta, giro ederra zegon ezkerre, kaleak ikustera erten giñan. Gure diruarekin ez dago geiegi luzitzerik,

florin bakoitzak berrogei ta amaika pezta balio ditu-ta.

Jaungoikoaren legeko seigarren agindua ez da egongo, seguru asko, Holanda'ko dotriñan. Gure erri txikietatik geiegi atera ez danak sarri egiten du *aitaren*, emengo gauzak ikusita.

Jendearen gorakoa, berriz, ikusgarria da. Bi metro inguruko jende asko da Holanda'n da Dinamarca'n. Jende altua bada ere, gerri alde xeraila. Ez da ikusten gure artean aiña tripa aundi. Izan ere, alako janariak jaten dituzte. Kolore edo arrazaz, berriz, errubioak. Sarri au gogoratzen zitzaidan: Alperrik zenbat jaten ote degu guk?

Uztaillaren 2'an, goizean, ganadutegi bat ikustera joan giñan, Holanda ere ganaduan punta-puntan dagon lurraldea da-ta.

Ni, beintzat, ametsetan ere bei ta bigakin asi nintzan. Etzan gutxiagotarako. Au zioten gure-tako askok:

—Auek danak ikusita, orain asi egin bear da gure baserri txarretan lanean!

Ondoren, lore—etxe batera zuzendu giñuzten. *Euroflora* bere izena. Emendik mundu guztira zalbaltzen dute usai gozoko landarea. Lana ere aurrerapenaren erreztasunez egiten dute.

Nazio auetan ere asko omen dago lan gabe-ko jendea. Nere iritzi apalean, ori ugaltzen joango da. Nola ez? Oraingo makinak eta sortu-ko diranak!... Aurki botoi batzuk sakatuz egin-go dira gure lur ontako lan geienak.

Aitatutako lorategi ortan emakumeak gozatu ziran. Bei-konturik etzan izango andik aurre-

ra. Tarro bana ere erregalatu zigun bertako nagusiak.

Eiza ere erruz ikusten da baztarretan: urate, uso, zozo, erbi... Basauntz banaka batzuk ere ikusi genitun.

Eizerako ez da egongo gurean aña irrikizio. Bestela, ez da egongo askatasunik.

Udazken edo negu aldera gure artetik pasatzen diran asko, andik etorriko dira, iparretik egoara, epeltasun billa.

Berriz ere gauari puska bat kendu genion da oeratu, urrengo goiezan Paris aldera abiatzeko.

Uztaillaren 3'an, bazkaltzerako iritxi giñan Prantzi'ko uriburura. Arratsaldea ta gaua gure esku genitun. Badago zer ikusia Paris'en.

Torre Eiffel ortara ere igo giñan bigarren zoruraño. Andik gora ez dago joaterik, obretan daudelako. Baña Paris naiko ondo ikusten da.

Euskalerriko erri txiki ta basarrietan azi ta bizi geranak, mutu ta ixil gelditzen gera aurrekalde ura ikusita.

Torre ori zuzendutako arkitetoak egin omen zun Ormaiztegi'ko zubia ere. Beraz, etzan edozein izango.

Jende askoren aotik au entzuten zan:

– Gaur egin bear balitz ere, arrigarri izango zan. Baña orain eun urte ta geiago, nola demonstre moldatu ote ziran?

Izan da gizon azkarrik len ere munduan. Beude betiko zorionean, guretzako ainbat edertasun utzi zigutelako.

Paris, Amsterdam, Bruselas, Madrid, Barcelona ta abar ikusteko ta maixiatzeko, aste osoak

bear dira. Gu, berriz, egun gutxirako lan asko artuak geunden da orrenbesterekin konformatu bear.

Uri aundietatik erri txiki ta mendi aldera aldegiten dula jendeak? Ez da arritzekoa. Uretan itotzeko arriskuan jartzen danean bat, legorra nai izaten du al dan azkarren, da oietan ito-zorian dago jende asko.

Badakigu Paris'en euskaldun asko bizi dala. Guri etzizaigun bakar bat ere egokitu ta ez da arritzekoa. Japonesa, txinoa ta moroa bai ugari. Ta nungoa ez?

Gaua munduko erririk aundienetako eta pamatuenetako batean pasa ondoren, etxe aldera abiatu giñan goizean. Au Uztaillaren 4'an zan.

Bazkaria Tours'en gendun. Naiko erri polita. San Martin emengoa omen zan. Bazkaldu ta, denborik galdu gabe, berriz autobusera.

Gaueko amar ta erdietan Donosti'n giñan, iñoiz aztuko etzaigun ibillaldi zoragarri bat egin da.

Nere iritzi batzuk:

Urrutiko kontu auek zenbait basarritarri esanda, txorakeri bezela artzen ditu; ta, bei on bat palta dunean, Santander'tik, Holanda edo Dinamarca'tik ekarri bear, da ganadualdaketan joaten zaizkio irabazirik geienak.

Etxean bigak azitzeari ekin bearrean gaude la esango nuke.

Euskalerriko basarritarrak bi bide dauzka, nere iritzi apalean, industriak dauzkanak: azkenengo aurrerapenez jarri basarria edo bestela utzi.

Egia da basarritarrari burla asko egin zaiola. Piakaitz egoteko motiboak baditugu. Baña aldatu bearrean gaude.

Bestetik, ez det esan nai bear añako laguntzik dagonik; baña orain añia ez da izan sekula. Ori egunen batean bukatuko da. Bestela, limosnatik bizitzea izango litzake. Ori etzaigu gogozko iñori.

Dinamarka'ko basarritarrak ez daukate iñungo laguntz-klaserik. Beren buruaren jabe dira. Emengo gora-berak aitatuta, arriturik gelditzen dira.

Emengo beste arazo bat: Basarritar askok fabriketan lan egiten dute ta nekazaritza bigarren mallan edo entretenigarri daukate. Bost ajola zaie basarria gaurkotzea.

Autobus berri-berri bat gendun da geiennetan autopistatan ibili gera. Bai bear ere, egunean milla kilometro egiteko. Ortan'ere aurretik dijoazkigu nazio oiek.

Euskaldunak, Prantzi edo aruntza erten ezkeren, edariakin izaten degu mirarik aundiena, ain zaleak geralako. Milla pezta pagatu bear dezu nunai botil ardo koskor bat.

Holanda'tik karrerista onak ateratzea ez naiz batere arritzen. Kamio-baztarrean bizikletan ibiltzeko bideak dauzkate ta bi kurpilleko tresna orrekin egundoko jende-pillak ibiltzen dira.

Denborarekin baliteke gurean ere beste orrenbeste gertatzea, gasolina urrearen prezioan jartzen ari zaigu-ta.

Izango dituzte oietan ere beren bizioak. Ba-

ña guk aña kape, kopa ta puru ez dute erreko.
Emen, berriz, egunero erriko pestetan gaudela
ematen du.

Berrogei ta amaseiko artaldea ezkerro, ez da
ba arritzekoa ardi beltz bat edo beste izatea.
Gurean etzan orrelakorik. Danak konforme,
danak alai da umoretsu. Bertsolariak ere saiatu
giñan kantu ta ipui. Itzaldi ederrik ere entzun
gendun.

Millaka esker txofer ta gidariai ta ibillaldi
orren antolatzalleai, da gañerako guztiai nai de-
zuten arte.

Nekazaria beti izan da
langillea ta apala,
aitortu bear bestetan dagon
zelairik emen ez dala.
Zer komeni dan ura ikasi
batek gogoa daukala,
'da egindako ibillaldiak
frutuak eman ditzala.

Komeni zaigu noizik eta bein
orrelako ibillera,
bestetan dauden aurrerapenak
sartu ditezen gurera.
Basarritarra jartzen ez bada
industriaren parera,
tripa zar onek asko bear du,
gaizki ibiliko gera.

Europa'n zear ikusi degu
makiña bat aurrerapen,

gauza askotan aien parera
jartzerik ez dago emen.
Ikasitzeko asko daukagu,
ortako bildu alkarren,
arnas berri bat artu dezagun
betiko ito baño len.

Basarritarrak saia gaitezen
ganadu-gaitz danak mozten,
komeni diran aziak jarri
eta ondorena pozten,
ixkoak mataderira eta
urritxak etxean uzten,
diru guztiak gastatu gabe
kanpotik beiak erosten.

Sail koskorrak batu ditzagun
al bada aundi egiñik,
zorigaitzean emen ez degu
Dinamarca'ko berdiñik.
Ganadu danak larrera bota,
iritzi ori daukat nik,
urte guztian ibili gabe
lanak burutu eziñik.

Berandu benik agintariak
erori dira kontuan
gauzak ondogi ez dabiltzala
basarritarren munduan.

Nekazariak batu gaitezen
industriaren moduan,
negar alperrik egingo baita
denbora joan da onduan.

(El Diario Vasco, 1983-IX-18, 21, 22, 24, 25)

USOAK

«Ezkur-urte, uso-urte» esan oi da, ta aurten-go au benetako ezkur-urte degu. Pagoak eta aritzak erruz daukate, arritzeko moduan. Lastima zugaitz-mota au urri dagola gure mendietan.

Iparretik Egoara neguaren igesi pasatzen zaizkigun pizti zoragarri oien izen osoa «pago-usoa» da.

Bada beste uso-klase bat urte guztian gure basoetan ibiltzen dana: izkitsua. Ezkia gure basoetako zugaitz bat izanik, pizti onen egitazko izena «ezki-usoa» da. Ortik datorkio izkitsua izena.

Zugaitz onen izeneko erri bat bada Gipuzkoa'n, Astigarraga ta Zumarraga bezelaxe: Ezkio, garai batean zer esan pranko emana, Ama Birjiña azaltzen zala ta etzala.

Esaera zarra aurten egizatzen bada, ez da giro izango illabete batean gure mendimuturretan. Ez soziedade ta ardandegietan ere.

Eize-klase ori izango da eiztari-mundua

geien mugitzen duna. Urte guztian orretxen zai egoten dan asko dago, lantokiko oporrak ill ortarako utziaz. Ill ortan, eiztari ez dan asko ere ikusi liteke eskupetakin.

Bestetik, nekerik gabeko eiza da. Gaur uso-parada askotara kotxean joan liteke. An, berri-
rri, belar biguñean exeriz, bokadillo ederra jan liteke, trago ederrak egiñaz.

Eiztari ona izango bada, gazterik asia bear du, ta nekeari bildurrik ez diona. Beste lan askotan ere, alakoak luzitzen dute.

Ezkondu ondorenean eskupeta erosi ta eizean asten diranak, nere iritziz, ez dira eiztariak. Ori, andrea etxean utzi ta alde egiteko aitzaki polita baita.

Eiztari askoren ustez, lenago bezela ez da orain usorik etortzen. Ez da arritzekoa. Lenago uso-leku politak ziran asko, gaur ez dira aitatu ere egiten.

Izan ere, itxaso-gaña igaro orduko, eten gabeko danbarra daukate, ta oiek ere bizia maite.

Garai batean, tirabidera ez bazan, etzitzaion tirako. Gaur bistan ikustea asko da, zazpi tiroko erraminta ustutzeko.

Beste batzun iritziz, piñuaren ugalmenak ekarri du usoaren urritasun au. Izan litekena da. Janik ez dagon lekura iñork ez du etorri nai. Zerbaitegatik daukate «pago-uso» izena.

Euskalerrian, tiroz aparte, badago beste biderik usoak eskuratzeko. Adibidez, Napparro'ko Etxalar'en sareakin. Irakurle askok jakingo dezute ango berri; baña norbait balego ez dakianik, nere begiz ikusia jartzera nijoa.

Ainbeste aldiz aitatzen degun muga ortan, mendi-sakon bat dago. Pago-illara batzuk daude, illaratik illarara tarté aundi samarrakin. Illara batetik bestera sare aundi bat zabaltzen dute.

Uso-bandak sare ori jotzen dunean, jetxi egiten dute. Uso gaixoak antxe arrapatzen dituzte bizi-bizirik.

Sarea indar aundian jo dutelako-edo, bakar batzuk eritzen dira. Oiei lepoa biurritzen zaie, ta gañerakoak saski itxira, prezio ederrean saltzeko.

Sarea jeixten danean alde egiteko suertea dutenak, ez dute eskaporik. An baidaude paradan jarrita eiztariak, igesi dijoazenakin gozatzeko.

Parada oiek subastan ateratzen dira urtero, ta ez ni bezelakoak artzeko moduan ere.

Len esandako sare oien aurrean, torre altu batzuk daude, gañean gizonaren gordelekua dutela. Urrutira ikusten dute uso-banda. Orduan turuta jotzen dute, sarekoak eta gañerakoak argi jartzeko.

Usoak altu badatozte, zurezko paleta bat karez zuritua botako dute aidera. Usoari gabiloi-txikia dala iruditzen zaio, ta itxu-mustu batean beeko pagadia jotzeraño jeixten da altu zetorren banda.

Bere ibillaldi ortan, gabiloi-txikia omen du etsairik aundiena. Leku batzutan mirua deitzen diote. Zerbaitegatik dio Pedro Mari Otaño'k:

Miru gaiztoak menderatutzen
duan bezela usoa.

Gerta liteke, etorrera aundia dagonean, sarea altxatzerako beste banda etortzea. Orduan, bi torretako gizonak paletak botako dituzte txandan. Uso-banda an ibilli-aziko dute jiraka beko pagadi gañean, sarea altxatzen duten arte.

Etxalar'ko uso-leku ortan ostatu eder bat dago. Ain zuzen, nere adiskide jator batena da.

Ez pentsa eiztariak bakarrik irixten diranik.

(El Diario Vasco, 1983-IX-23)

ZUGARRAMURDI

Aurten ere an izan gera, aurreko urtetan bezela. Gogozko dituzte bertsolariak. Euskadiko beste erri askotan bezela, Agoztuko Ama Birjiñez urteko jaiak. Jai alai eta paketsuak benetan, oso erri polita dalarik. Ez da gutxi gaurko egunetarako.

Zugarramurdi'tik arrikada bat bide dago ainbat zer esan ematen duan muga ortara. Artueman aundiak dauzkate Sara ta iparraldeko erriekin. Onuztik, berriz, Dantxarinea ta Urdazubi gertuenak.

Arritzeko ez danez, lanera aruntza joaten dira asko. Gaueko ibillerarik ere ez da paltako. Euskaldun geienak muga ori kendu-zaleak bagera ere, badira berari esker dirua bapo irabazten dutenak. Esaera zarrak diona: txarrik ez dala, zerbait onik ez dunik.

Ainbeste izango dira-ta, gertakari bat polita kontatu ziguten, orain urte asko ez dala pasea.

Badator basarriko gizon bat, gaua pasata

etxera, zakua bizkarrean zintzilik dula, naiko itxura txarrean. Gau-pasa oiek ez baidira izaten leku dotorean paseatzekoak.

Etxera baño metro batzuk lenago, ikusi ditu goardizibillak ate-leiotik begira, bere zai daudela.

Erabaki bat azkar artu bearrean da. Jira ta igesi abiatzen bada, bera nabarmentzen da.

Zer pentsatuko ta kerik egin gabe ate ondorra joan, txapela erantzi ta errezatzen asi, limosna-eske dabillen eskalea balitz bezela.

Bere andreak limosnatxoa eman, ezagutzen etzun itxuran; da eskaleak eskerrik asko apal-apal emanaz, beste basarri batera balijoa bezela, anka.

Nagusia noiz etorriko zai zeuden goardizibillak ederki izurratu zituzten, alajaña. Etziran unibersidadean ibiliak izango nagusi-etxeakoandre aiek; baña tontotik ezer etzutenak.

Zugarramurdi'ri ala ere izan aundiena eman diotenak, bertako leitze edo kuebak izan dira. Nork ez ditu entzun Zugarramurdi'ko sorgiñak eta akelarreak?

Urtero, erriko jaietan, bertan egiten da ain pamatua dan zikiro-jatea. Aurten ere ba omen ziran seireun lagun, ogei ta sei zikiro jateko. Sorgiñen batzuk gutxiagorekin pasa bearko zuten noizbait.

Ainbeste iritzi daude sorgiñetzaz. Batzuk, ipuiak dirala esango dizute; besteak, berriz, or bazala zerbait. Ontaz galdetu diogunean, ara nola erantzun digun bertako jaun batek:

-Garai artako aberatsak, illargiaren alda-

kuntzetan, morroiak bialtzen omen zituzten, pamiliak bizi ziran inguruetara, alabatxorik bazan, lapurtzera. Gero, leitze oietara ekarri, nagusi lizun oiek nai zuten gisara jolasteko, mamuru edo txantxo gisan arpegiak estalita noski. Oiek omen ziran sorgiñak. Jolasketa guztitik asetzen ziranean, akerra botatzen omen zioten erru gabeko aingerutxoari. Ortarako aproposa omen da akerra. Ura ere pesta izango zan da aberatsena. Ortik omen dator gure izkuntzan ain zabaldua dagon *akelarre* itza.

Oiek orrela badira, orain ain modan dauzkagun neska-beartze edo biolatzalleak baziran lenago ere, ta ez txukunagoak gañera.

Txar guztia gaurkoa ote degun pentsatzen degu askotan. Baña ez da orrela izango. Gizona beti pekatari.

Beste gauz bat ere kontuan artu bearra daukagu: orain munduko edozein ixkiñetan gertatzen dana, garai batean auzoan gertatzen zana baño azkarrago jakiten degu. Txarra, berriz, lenago zabaltzen da beti.

Gure mundu kaskar au etzan santua izango len ere. Gero ere ez da izango, itxurak diranez.

Zugarramurdi'n giñan
aurtengo jaietan,
pozik ibilli gera
leku aietan.
Umorea sobre da
ango anaietan,
batez ere urteko
pesta alaietan.

Beko zelaietan
da mendi goietan,
artzai sendietan,
nekazarietan,
guztiak pozik beren
alderdietan.

(El Diario Vasco, 1983-X-12)

EIZTARIAK

Bada ba oraintxe eizerako zaletasuna. Joan dan urtean eizerako baimena Gipuzkoa'n artu zutenak, ogei ta amar milla omen ziran. Bada zerbait. Utsa eiza itxura-antzean balego. Ta emendik kanpo ere naiko neurri estuak, *coto* eta abar.

Askoren iritziz, eskerrak neurri estu oiei. Bestela, agur España'ko eizak.

Xelebrekeri pranko entzuten degu sarritan. Eiztari danak eiza ugaltzea nai luteke, ta, esku-peta artzen degunean, txori bati ez diogu utzi nai bizirik. Ondo dago merezi duanari tiratzea; baña izadia alaitzen eta edertzen duten txori-txoak...

Argentina'ko zelai zabaletan ibilli giñanean, arritzen giñan. An zugaitz gañean tirabide ederrera ikusiko ziñuzten dozen erdi bat pizti, tortola, uso ta abar; ta iñork etzitun aintzakotzat artzen.

An uso bat lumatzera ez da iñor joango, gero ura jatearren. Ez orixe! Emen, berriz, errian bi uso ikusi ezkerro edo badabiltzala jakinda, konpañi ederra laister biltzen da beroien atzetik segika.

Egia da Soziedade edo Alkarte batzuk eiza botatzen dutela. Mendian garia egindakoak ere badira, eperrak zer jan izan dezaten. Asmo bikain da aberatsak berenak; baña, nere iritzi apalean, oso gutxi luzitzeko, emen dagon gosearekin.

Garai batean, erriko eiztariak jakiñak izaten ziran: sekretarioa, sendagillea ta beste jauntxo banaka batzuk. Gaur, berriz, bi edo iru eskupe-ta ez dagon etxerik ez da izango, ta bost ta zazpi tirokoak asko. Orain, eiztari-egunak gerra-egunak ematen dute.

Soziedadean alkar-izketa au entzun nun lengoan:

–Emen eiza ugaritze ezkerro, eskupeta danak bildu bearrak zeudek bost bat urterako.

–Bai; baña eskupeta eta kartutxo-pabrikak zer egin bear ditek?

Betikoa: munduko kurpillak jiraka jarraitu bearko du. Bestela...

Baditu alderdi onak ere eiza kontu onek. Eiztariak aña ilusio ta itxaropen jartzen dunik ez da izango, sarritan usteak ustel ertetzen badira ere, munduko beste ekintza asko bezela.

Mendiko ibillera danez, osasungarria dala aitortu bear. Emazte askok ez dute orrela pentsatuko baña. Gastuak ere ez baiditu nolanaikoak eiz kontu onek.

Gizonak alkar iltzen gabiltzan bitartean, eiztarien pekatutxoak barkatu-errezak dirala iruditzen zait.

Zenbat ipui, zenbat bertso sortu ote da, eiztariak dirala bitarte?

Bestetik, alako gezur-pama bat badute eiztariak. Izan ere, dana egia esango balute, gizon parregarri batzuk izango lirake, ta nolabait ere moldatu egin bear beren ibiliak.

Eiztariaren ametsa
dago esaten erreza:
mendi aldean bixitatu nai
erdia ta ertza.
Ibillera aldrebesa,
sarri egualdi traketsa,
ta azkenean geientxunetan
soldatarik eza (1).

Sarri goian eta beran
pauso guztiak galeran,
ibilli arren etxeratzeko
zerbait e ote dan.
Eizik ez dago aukeran;
garai bateko tankeran,
nik ez dakit ain ameslariak
zertarako geran.

Zerbait dagoan lekura
al baldin bada ingura;
tirabidera jarri ezker
zertarako duda?

1. Doñua: «Aizak, i, mutil mañontzi».

Nork izango du ardura,
adierazteko modura,
eiza botata eskuan artu
bitarteko ura?

Billatu nairik zorion,
mendian nai du berri on;
eskupeta ta kartutxo, kotxe,
zer gastua dagon!
Etxeko danak or konpon,
korputzak izango du on,
andre gaixoa alare pozik
ezin leike egon.

(El Diario Vasco, 1983-X-19)

IRITZI EZBERDIÑAK

Oraindik orain, Gipuzkoa'ko erri txiki batean bertsotan giñalarik, apaiz gazte bati auzuntzun nion gutxi gorabera, bazkal-denboran giñala:

Mundua zuzentzeko, Kuba'n Fidel Castro'k artu zun bidea artu bearra omen dago. Ez omen da beste irtenbiderik ikusten.

Mutu gelditu nintzan. Gañera, ni bezelako ezjakin batek nola asi bear du izketan alako gizon baten ondoan?

Ta orain dator polita. Agorraren lendabiziko igandeko *El Diario Vasco*'k Jose Mari Mendiola'ren lan bat zekarren. Asi ta bukatu arte pozik irakurri nun. Ala zion:

Billabona'ko seme dan eta azkenengo ogei urteetan Ameriketako Miami'n apaiz-lanetan jardun dan Don Migel Arrillaga'rekin egindako alkar-izketa.

Gure apaiza Amerika'ra iritxi zanean, 1962'an, Kuba'tik iges egindako jendea bete-

betean omen zetorren Miami'ra, ta ez Batista'ren aldekoak bakarrik, orduko munduko prentsak ekarri zun bezela, klase guztietakoak baizik.

Kuba'n utzi omen zituzten beren ondasun guztiak, ta esku-utsik Miami'ra, bizimoduari berriz ere arpegi emateko asmotan.

Apaiz onek dionez, berak ikusi omen ditu, ugarte ortatik iges eginda, sendagille pamatuak, izen aundiko operatzalleak, politikoak, Miami'ra etorri ta oteletako platerak garbituz bizimodua ateratzen. Da naiko umore onarekin artzen omen zuten gauza.

Ikusi omen ditu, baita ere, Kuba'ko aristokrazian goi-mallan zeuden emakumeak, Miami'ko lurretan tomate biltzen, eguzki-galgatan gañera.

Eskallerak gorako ta beerako zirala esan zuanak, bazekian zerbait.

Garai artako egunerokoak, Kuba'ko aberastasanak oso esku gutxitan zeudela esan omen zuten, da ori ez omen da egia. Garai artan, ugarte ortan omen zegon, Amerika guztian, bi-tarteko (*clase media*) jenderik geiena.

Fidel Castro'k nazioko aberastasan aundienak bereganatu omen zitun da aurrera.

Mendiola'k, Kuba'n Eliza Katolikoa nola ote dabillen galdetu dio Don Migeli.

Erantzuna: Kuba'ko elizetara jende mordoska bat joaten omen da; baña konturatu omen da, Miami'ra datozen ogei urtetik beera-koak, bataiatu gabe daudela.

Seguru asko, gurekin bazkaldu zun apaiza, Kuba'ko asko baño obetogo biziko da.

Nik ez dakit zer egin beariko dan mundu obeago ta justuago batera iristeko. Baña bada oraintxe mundu-arreglatzalle pranko, ta seguru asko sekulan egon dan premi geienez dago.

«Zenbat buru, ainbat aburu» dio esaera zarrak. Baña nazio batetik al dan lekura jendea igesi joatea, ez da señale ederra. Toki onetik ez baitu inork joan nai izaten.

Oporretan-edo ibillaldira bat Kuba aldetik egindako jendeakin izketatu izan gera. Geienari, beintzat, etzaiote gustatu ango bizimodua. Beste askotakoa ere ez. Au entzungo dezu ago danetatik:

–Euskalerrian bezela jenderik ez da bizi inun.

Naiko lanak badira ba oraintxe gure ontan ere.

Eskubiderik ez da
pentsatzeko berdin,
baña entzuten dira
ainbat kontu gordin.
Askatasuna degu
gizonarentzat din,
ondo dagon lekutik
nork nai du aldegin?

Ondo bizi eziñik
milla buruauste,
dana gerendu nairik
etxe ta erbeste.

Iñor ez da konforme
ez zar ta ez gazte,
gudatean sustraiak
ortikan datozte.

Aurrerapenak gañez
egin duten ontan,
bizi bear genduke
guk erregalotan.
Baña etsaia erë
ez daukagu lotan,
kristauak konturatu
gaitezela ortan.

(El Diario Vasco, 1983-X-21)

ERROTAK

Errota baten ondotik igarotzean, gogorapen pranko etorri zaizkit. Al dan txukunena papere-ratzera nijo.

Esaera zar asko dira bizi-bizi daudenak. Baña «gu il da gero ere astoak errotara joango dira» esaerak, indarra galdu zun.

Gaurko gazteak ez dakite astoak errotara joatea zer dan. Garai batean, etzan izango astorik eta basarrian gazterik, astoarekin errotara joan gabekorik. Neroni ere joan-etorria pranko egiña naiz, bateko gariakin da besteko artoakin.

Errotariaren negozioa edo bizi-malla, errian zan onentxoenetakoa juzkatzen zan. Gizon argiena ere bai. Ortik onako esaera au: Tontoa dek ba errotaria!

Gogoan daukat bein esan zidana, astosaskietan bi zaku gari-irin kargatu giñuztenean:

–Zenbait kaletarrek auek baleuzke, egun pare batean saltoka ez uke geldituko. Garai ba-

tean parra pranko egiten zien; baña orain inbiri ederrak pasatzen dizkie.

Beste garai batzuek ziran da ez ditezela etorri.

Baña gure gizartean ainbat laguntz ta istori eder bat duten arriak sasi tartean lotsaturik ego-teak, pena ematen dit. Museo gisara-edo, zaindu bear luteke batzuak, gauz zar asko ain maitatuak diran garai ontan.

Izan ere, erreka-zulo dexentea billatzea asko zan errota billatzeko.

Zenbat maitemin erne ote da errotara bi-dean? Zenbat ipui, zenbat ateraldi bizi loratu diran, Jaungoikoak bakarrik daki. Zato ardoakin errotara etortzen zan basarritarra ezagutua nago.

Pello Errota batek eta bere bertsolari lagunak zenbat aldiz aitatu ote zuten «errotako tran-ka»?

Baziran ibillera larriak ere. Izan zan garai bat, gariak eltzen ziranerako errotak ixten zituztena. Goiko aginduz, jakiña. Orduan izaten ziran komeriak. Tabernetako arrantxotan eta gañerako alkar-izketatan etzan beste konturik. Batek:

–Gariak eltzeak ez dik asko balio, orain errotak ixtekotan.

Besteak:

–Zerri urdeak!

–Alako errota gauetan ari omen dek lanean
–esango zun irugarren batek.

Izango zan esango zuana:

–Bai; arek irin ona egiten dik. Baña bai laka

kendu ere. Aruntza zaku pisua eramán da ariña etortzen dek.

Laka zer dan ez dakitenentzat: errotariak lanaren ordañez artzen zun saria, euneko amabirik ezagutu nun. Beraz, eun kiloko zakua ekartzen zun basarritarra, amabirik kilo gutxiagorekin etxeratuko zan. Legepean zebillen errotaria baldin bazan beintzat.

Errotarien etsairik aundiena udarako legortea izaten zan. Ur gutxiko errekek izan gure auek, ta urak bear derrior, arriak ibiliko baziran.

Amorrrairik ederrenak ere errotariak jango zitun. Beraz, ez da arritzeko, gizon onen bizi-moduaz erria inbiritan izatea.

Garai batean irabazbide ziran ofizio asko joan zaigu pikotara, ta auen artean errotaria.

Errotara bidean
astoak ugari,
bertan egotzearren
arto eta gari.
Puska ederra utzi
errotariari,
negu-bildurrik gabe
izaten zan ori.

Alea irinduaz
errotako arrian,
astoak zakuan zai
berriz atarian.
Naiz kalean bizitu
bizitza larrían,

goserikan ez gendun
izan basarrian.

Errotak ixten ziran,
aiek komeriak!
Orduan artu bear
gaueko ibiliak.
Goardizibillen bildur
txit une larriak,
eskerrak lagundutzen
zula illargiak.

Lana egin ezker
ematen du lurrak,
erdoirikan etzuten
orduko atxurak.
Menderatu giñuzen
bizitza xamurrak,
alperrikan dijoaz
errotara urak.

(El Diario Vasco, 1983-X-25)

PELOTAZALEEN JARDUNAK

Pelotazalea naizen ezkerro, sarri izaten naiz alkar-izketako saltxa ortan. Izan ere, gure mutil koskor garaian ez gendun pelota beste jolasik ezagutzen. Nola zaletu ez?

Lenen mallako pelotariak jokatzen, Tolosa'ko Beotibar'en ikusi nitun lendabizi. Bi, beintzat, Soroa ta *Zurdo de Mondragón* ziran. Beste biak, ez naiz gogoratzen. Ura gozamina, zuriz jantzitako lau gizon aiei begira! Aiek ezkerkadak mondragoitarrak!

Orain dala ogei ta bost urte inguru, au entzuten nun orduko pelotazale elduengandik:

–Gaur ez, baña len ziran pelotariak: Mondragonesa, Atanotarrak, Kortabitarte, Onaindia, Etxabetarrak, Gallastegi ta abar.

Orain, berriz, beste au entzuten det askotan:

–Oraingo pelotari auek arrapatu izan baliuzte garai batean Ogeta'k, Soroa'k, Arriaran anaiak, Barberito'k, Garzia Ariño'k, kantxatik pelotakadaka atera aziko zituzten.

Ni seguru nago, emendik ogei urtera, gaur modan dabilzan Erretegi, Lajos, Pierola, Galartza, Tolosa, Gorostiza, Maiz, Bergara, Bengoetxea ta abar pamatuko dituztela.

Jakintsuren batek, gizona iltzen zanean aunditzen zala esan omen zun, da ez da gezurra izango.

Au da nik garbi ikusten dedana: lengo lan batzuk oraingoekin ezin leizkela neurtu. Adibidez, pelotariak, bertsolariak, dantzariak, bozeolariak...

Neurtu litezken lan geienetan, orain marka obeak egiten dituzte, alde aundiarekin gañera: aizkoran, arri jasotzen, korrika, bizikletan, arraunean da abar.

Askoren iritziz, orain gobernu eta preparazio ohea daukatelako egiten dira marka oiek.

Pelotariak bakarrik ote daude, ba, mantendu ta preparazio txarragoarekin?

Uztapide zanaren arrazoi bat sarri datorkit gogora. *Denbora pasa* liburutxoan jartzen dedan bezela, gure aita zanak onela esaten zidan:

–Len itun bertsolariak, len! Udarregi, Pello Errota, Txirrita ta gañerakoak.

Manuel beste batekin bertsoan zan Tolosa inguruko erri txiki batean. Bertako jaiak ziran. Emezortzi bat urte izango nitun. Antxe, aien ondoren, zijoazten leku guztietara, zer entzungo ta zer ikasiko. Uztapideri au esan nion:

–Lenago izango ziran, esaten dutenez, bertsolari onak.

Erantzuna:

–Onak gutxi, len ere.

Arriturik utzi niñun. Gaur gero ta ziurrago ikusten det arrazoi osoa zula.

Nere kezkiak aundiena au da: zaletasuna ari dala gutxitzen; prontoietan, pelotako ordeztu, fubolean ikusten ditugu gaurko mutil koskorrak. Ta, nere usteztu, bakoitzak bere lekuan ematen du ondu.

Izan ere, inglesak sortutako kirol orrekin, danak txoratu gera. Jende asko ezagutzen det, beste ezertan itzegiten ez duna. Nik ez daukat fubolaren kontra ezer ere. Euskaldunak, berriz, lenengo puntan dabilta ta urte askotan jarraitu dezatela.

Pentsatzen degu lenagokoak
ote ziraden onenak,
oiek dirade gaurkoarekin
juzgatu ezin leizkenak.
Txalotzen ditut lengo zar aiek
ta orain modan daudenak,
gaur e badauka nun gozatua
pelota maite duenak.

Ona izatea oso zalla da
ekintza-klase guzitan,
sasoiak duan edertasuna
daukagu urte gutxitan.
Onena ere ez da erortzen
iñoiz zenbaiten grazitan,
zarrak baztertu, gazteak erten,
ez leike asi auzitan.

Prontoian pelotariak eta
fubol-zelaian fubola,
ondo dakit nik bere lekuan
guztia ondo dagola.
Galtza zuriak ugaldu leizke,
esango dizutet nola:
pelotarentzat baldin bagendu
baloian degun ajola.

(El Diario Vasco, 1983-X-27)

USTE GABEKOA

Urriaren 22'an, larunbatez, egun eder bat igaroko gendun asmoz joan giñan Itziar aldera. Ala izan zan apal ordua arte. Gero, ordea, aldatu ziran umoreak.

Itziar'ko Azkonar basarritik zabaldutako landareak bildu ziran alkarrengana beren senar-emazte ta seme-alabakin, egun eder bat pasatzeko itxaropenez. Egoardiko ordubatean meza, Endoia'ko elizatzxoan. Mendi-mendian dagon auzo au, Zestua'ri tokatzen zaio.

Emen jaio ta bizitu zan urte askoan, aztu ezin zaigun Uztapide zana. Bertako plaza berari eskeñia dago, arrizko losa batean bere irudia dagola. Gaur Itziar'tik kamio ederra dago. Zestua'tik pista ere bai. Baña trena ta automobil batzuk bakarrik ziran garai artan, zenbat ibillera xeblebre egin ote zun gure maixu aundiak?

Meza ondoren, Ziolar basarri ta jatetxera zuzendu giñan alkartasun-bazkarira.

Azkonar'tarrak badute tartean bertsolari bat, jaiotako basarriaren izenarekin ezagutzen dana, garai batean poliki luzitua, azken urteetan erretira-antzean bizi bazan ere. Uztapide Belauntza'ko pesta batean ezagutu nun. Laguna, Azkonar ori zun, mutil gazte bikaña. Ala ere, geroztik amaika aldiz alkartu gera.

Ziolar'ko bazkalondoa ere alaia zan. Nik esatea ez dago ondo; baña sekulan kantatu gendun obetoena kantatu ote gendun iruditu zitzaidan. Arratsalde bikaña, soñu, bertso ta dantza. Zer geiago eskatu?

Tarteko badituzte bi anai praile ere, Aita Imanol da Aita Juan Jose Uranga, Tolosa'ko Sakramentinoetan daudenak. Bigarrenengo onek denboraldi bat Jerusalem'en pasa du. Galdera batzuk egin nizkion:

–Zer moduz alderdi artan?

–Ondo. Ura beste mundu bat da. Gerra-bildurra ere izugarria dago. Judutarrak, sei eguneko gerra artan, lurralde asko kendu zizkieten arabeai. Jerusalem da Belen ere bai. Orain arabeak, len galdu zituzten lurak eskatzen dizkiete; ta irabazleak ez eman nai ta ez det uste emango dizkienik. Orregatik, beren armak erdoirik gabe dauzkate.

Endoia'ko gallurrean geundela, bi kurrillo-banda pasa ziran, naiko gertu gañera. Galdetu nion:

–Alderdi aietan bai al da eizik?

–Eiza? Erruz. Itzala egite-añako zozobandak ikusten dira.

–Eiztaririk ez al da?

-Eiztariak bai. Baña gerra-bildur orrekin eskupeta guztiak bilduak daude.

Gure ontan dabiltzan zozoak ez dute orrelako suerterik. Gerra-bildur ori gaizki ezin etorri danentzat.

Lurralde pobrea omen da berez. Baña, judutarrak langille amorratuak diranez, naiko aberasten ari dan nazioa degu. Lana izan nunbait egirik nagusia mundu ontan. Gerrarako prestatzen gastatzen omen dituzte izugarriko milloi-pillak. Neskak eta mutillak, danak daukate iru urteko soldaduzka. Munduko gaitza: Alkar iltzeko buruausterik aundienak.

Basamortuan, ondarraren orde, lurra omen da. Erregadioz bustitzen dute. Bai etekin ederrik arrapatu ere. Ango jendeak, aza, arbi ta gañerako berdurak gordiñik jaten omen ditu. Sarritan galdera au egiten det: Emen ez ote gaude oraindik jaten asko ikasi bearrak? Garai batean zeñek esan tomatea gordiñik jan bear gendunik? Kastillanoren bat ikusten bagendun, berriz, parra eta iseka egingo genion. Orain, berriz, gerok jarri gera iñor baño areago.

Jantzia ere oso parregarria ibiltzen omen dute. Gure begietarako, jakiña. Tolosa'ko iñauterietan ibiltzen diran antzekoak noski.

Beste au ere galdetu nion:

-Jesus jaio zala ta il zala ta beste gertaera asko, esaten dituzten leku berberetan gertatu ote ziran?

Aspalditxotik ba omen zan naiko kezka. Baña arkeologoak azken urteetan azterketa izugarriak egin omen dituzte; ta, auek diotenez, esa-

ten dan leku oietan gertatu omen ziran gure sinismeneko gertakaririk sakonenak. Lantegi ortan dabiltzanak zenbat aurreratu duten ikusita, auek esaten dutena sinistu bearra daukagu.

Au da garbi ikusten dana: Jesus Salbatzallea jaio zan lurretik asita, mundu guztia dagola sua nun piztuko dan bildurrez. Denborak esango du zer gertatzen dan.

Goazen Ziolar'ko basarrira. Illuna etorri zan da batzuk etxera ta beste batzuk Itziar'ko Urbero sagardotegira zuzendu giñan apaltzeko asmoz, Azkonar bertsolaria tartean gendula.

Etxe berria da. Dotore asko jarria dago. Uste det jendea prankok bixitatuko dula

Postre-garaiean, gure bertsolariari ondoeza asi zitzaion. Kanpora aizetara atera zuten da minutu gutxi barru ilda zegon.

Asko pentsatzen ez gendula etorri zitzaion azken ordua, berrogei ta emezortzi urterekin. Pakean beza atsedean, ain maitea gendun lagun Imanolek.

Pozez beterik asitako eguna ara nola bukatu gendun. Ortik pentsatu zer geran. Ez daukagu alkar iltzen ibilli bearrik.

(El Diario Vasco, 1983-XI-3)

BILLUZKERIA

Bada oraintxe zer itzegiña ta zer entzuna billuzkeriari buruz: alako ondartzetan danak larru gorrian ibiltzen dirala; beste artan bakar batzuk ikusten dirala; bularrak bixtan dituztela eguzkia artzea modan dagoala... Kaleko manifestazioak ere asi zaizkigu erroparen enbarazo aundirik gabe.

Jende eldua aitarenka, inpernuko etsai guztiak emen ditugula esanez.

Beste batzuk, urte guztian udara balitz, erropa-dendak ez lutekela irabazi aundirik.

Geienetan, emakume gazteen bizkar botatzen degu erru guztia.

Nik ez dakit eguzki onek lenago baño geiago berotzen dun ala ez. Ortarako, idazten ari dan au baño jakintsuagorik izango da. Egia au da, ordea: danok ari gerala jantzi-kontu ortan zabartzen.

Bestela, begiratu garai bateko joko-gizonen argazkiai. Adibidez, Lokate eta Prantzesa sega-

lariai. Txaleku ta guzti ikusten dira, alajaña. Gaurko segalariak, berriz, igarirako erropa besterik ez daukatela ikusita gaude jokutzen.

Orain ogei ta amar urte, basarritar bat nekez ikusiko gendun alkandora erantzita lanean, bero galanta izan arren. Gaur berriz...

Ni ez nijoa ondo edo gaizki dagon esatera, orain indartzen ari zaigun moda au. Aragizko griñak ere beti or izango ditu gizonak. Bat nolako formazio ta oituretan bizitua dan ere, ez du gutxi esan naiko.

Apaizak sotanak utzita asi ziranean, bazirudin dana bukatu zala. Ura marmarra etxean da ardandegietan! Gaur, berriz, sotanakin ikusita arritzen gera.

Gorbata-kontu ori ere modatik pasatzen ari da. Zorionean sortuak izango ziran galtza bake-roak. Oiek jantzi ezkerro, bat ondo dago eztaietara joateko, elizara joateko ta lanerako. Bai orixe.

Gizonezkoenak baño lotuagoak ziran emakumeen jantziak eta oiturak. Eliz batean etzaukaten sartzerik burua mantillarekin estali gabe. Orain, berriz, len aitatutako galtza bakero oiek jantzi ezkerro, zenbat eta ajatuagoak obe, eguna argitu arte pestan edo nunai ibiltzeko ajola gutxi.

«Izarrak ertetzean, neska gaztea bego etxean» esaerak gaur ez du indarrik, beste askok bezelaxe.

Negua... Emen dago koska. Onek biltzen gaitu arrastora. Sendagille batek esan dula billuzik eguzkia artzea osasungarri dala-ta, oni ez dio

ajolik. Beste batek bere gorputzarekin nai du-
na egin lezakela-ta, neguak jantzi araziko dizkio
erropak.

Apaiz ta praileen itzaldiai étzaiola kasorik
egin bear dionak ere, neguari kaso egingo dio.

Zigorraren bidez sartzen da arrastotan, ta
negua beti izan zigorra.

Munduko erri zibilizatu guztietan berdin sa-
mar jazten gerala esango nuke. Izan ere, mun-
dua txiki biurtu zaigu. Auzoa bezela ikusten
baidegu urrutienekoa.

Erri bakoitz eta arraza bakoitzaren jantziak
urteko egun jakin batzuetarako gordeko ditugu.
Euskal pesta bat bearke da brusa ta abarkak
jazteko. Arrantzale egun bat arrantzale-gisara
jazteko, ta abar ta abar.

Ondo jazteko orain ez dago
lenago ainbat arreta,
trajeak eta gorbatak daude
armarioan gordeta.
Denda guztiak ortxe dauzkagu
jantzi ariñez beteta,
gaurko gazteak billuzkeria
modako artu dute-ta.

Udarak daukan edertasunak,
jaunak, nor ez du alaitu?
Ondo ta gaizki nun da zer dagon
ezin nezake epaitu.

Euskalerrian gertatzen dana:
asi orduko amaitu;
negu luzea etortzen da ta
orrek umildutzen gaitu.

(El Diario Vasco, 1983-XI-9)

DONOSTI'KO PARTE ZARRA

Gipuzkoa'n leku maitaturik bada, Donosti'ko Parte Zarra izango da ba. Donosti'ratzeko oso aitzaki gutxi bear degu. Munduan zear asko ibilitakoak ere, orixe esango dizute.

Baña euskaldun basarritarrak baditu aparteko egun batzuk. Oso antziñatik, arraun-jaiak ta Santo Tomas eguna. Azken urte auetan, berriz, bertsolari-jaiak ere bai.

Parte Zarreko tabernariai ta jatetxeetako nagusiai jenderik geiena noiz izaten duten galdetu ezkeru, Agoztuan esango dizute. Jenderik jatorrena galdetu ezkeru, berriz, len esandako basarritar egun oietan esango dizute danak ao batez.

Izan ere, euskaldun basarritarrak badu aparteko kutsu berezia. Ezjakiña ta analfabetoa izango zan; baña errespetoz ta bear bezela ibiltzen iñor gutxik eramango zion.

Gaur ez degu jakinduri-paltik. Errespeto-

palta ederra badago, ordea. ta basarritarretan ere gaitz au sartzen ari zaigu.

Norbaitek galdetu lezake: Dotriña justu-justu ikasi zuten aiek, nola jabetu ziran alako aberastasunez?

Nere iritzi apalean, etxeko sukaldetik eta elizatik.

Basarriko sukalde zarrak ez al dira ikastola txiki batzuk izan? Zenbat bertso zar, zenbat ipui edo ateraldi ta esaera! Euskera ere bai, gaur leku askotan dabillen baño jatorragoa.

Elizan, berriz, jaieroko itzaldiak ta Ebanjelioko pasadizoak ondo gogoan artuko zituzten, tontoak etziranez. Gaur eliza alde batera utzi degu, Jaungoiko gerok biurtu gera-ta.

Bestetik, euskaldun basarritarra etzan nolainai aterako etxetik. Egun bat ondo pasatzeko modurik ez bazun, etxean geldituko zan.

Gaur, berriz, jende asko, egun baterako izan da amar edo amabost egunerako dijoa. Orregatik gabiltz gabiltzan bezela. Oraindik orain, Donosti'ko jatetxe bateko etxekoandreak au esaten zidan:

—Agoztuan jende asko ibilli gendun, baña diru gutxikoa.

Gaur, urteko egun askotan Parte Zarreko kaleak pena ematen dute. Jende arrotza ugari. Narraskeria gañez. Itz batean esateko, kristau-itxurik gabekoak. Alde ederra len aitaturako basarritarrendik.

Komeni zaigu luzatutzea
zugaitz onaren adarrak,

zaputz-aldi bat emanagatik
etsai gaiztoan indarrak.
Gozatzen gera erritar danak,
ala berdin kanpotarrak,
grazi aparta berekin baitu
Donosti'ko Parte Zarrak.

Aukera dago nai dan janetik,
zer esanik ez erariz,
itxasoaren goxotasuna
oso gertuan du berriz.
Neronek ere an gertatuta
esan det amaika aldiz:
Naiago nuke Zerua ere
onen antzekoa balitz.

Ango jendean jatortasuna
ta kaleko ibillera,
taberna batetikan erten da
sartuan beste batera.
Adiskide ta lagunak nunai,
nagusi euskera bera,
bizimoduai probetxu geio
ezin liteke atera.

Mama goxotik naikoa bada,
korputzaren atsegiña,
andik aurrera billatuko da
zer gaietan itzegiña.
Nai dunarentzat mendia eta
ala itxaso urdiña,
Zerua badala sinisteko
gure Jainkoak egiña.

Emen oiturak eta legeak
aldatutzen dijoazte,
onbiderako danak diranik
iñork ez dezala uste.
Ni beti nago errespeto ta
garbitasunaren eske,
gure Donosti maitagarriak
mereziko du ainbeste.

Santo Tomasak ta arraun-jaiak
eta bertsolarienak,
Gipuzkoa'ko basarritarrak
geien maite dituenak.
Egun eder bat Donosti'n pasa
ta etxeratzen diradenak,
oiek dirade Parte Zarreko
klienterikan onenak.

(El Diario Vasco, 1983-XI-11)

ESKER ONEZ

Agoztuaren aurren egunetako bat zan. *El Diario Vasco*'tik albistari bat gure etxera: nerekin itzegin nai zukela.

Patxaran asi giñan izketan. Au esan zidan: ea eguneroko ortan idazten asi nai al nun.

Mutu gelditu nintzan. Sekulan ez bainun orrelakorik pentsatu. Aurrera izketan jarraitu ondoren, prueba bat egingo gendula esan nion.

1983'ko Agorraren 14'an azaldu zan nere lenengo idatz-lana. Batek baño geiagok esango zun:

—Txomin idazle? Txomin periodista? Ez dek zalla izango.

Neretzat oso zalla, irakurle. Gañera, ez nun uste iñork aintzakotzat artuko zitunik. Bai-baidakit balio gutxikoak dirala, nere jakintza-mugak oso motzak dira-ta.

Leku prankotan irakurtzen dira, ordea. Andik eta emendik etorri zaizkidan zorionak dira

testigu. Ez nun uste olakorik. Kartaz edo telefonoz danai ezin eskerrak eman, da eguneroko onen bidez danai milla esker. Al dedan ainbeste tean saiatuko naiz.

Nik nai baño geiagotan izango dira utsegi-teak, da, nere irakurleak, mesedez barkatu.

Eskerrak ematen asi naizen eskero, jarraitu dezadan.

Iru urte paseak dira okerra izan nula, ta makulu batekin etxe inguruan orain asi naiz. Erresidentzia dala ta ez dala ainbeste iritzi entzuten dan ontan, uste det badedala itzegiteko motiboa.

Tolosa'ko San Kosme ta San Damian gaixo-etxean izan nitun lenengo urteko artu-eman guztiak, lau operazio izanez. Borondaterik onenarekin portatu zitzaizkidan danak, goi maillatik azkenera bitarteko guztiak. Begiratu *El Diario Vasco* ontan, 1980'ko Abenduaren 13'an argitaratu ziran bertsoai.

Bi urte pasean, berriz, Donosti'ko Erresidentzi aldetik nabil. Beste lau operazio bertan izan ditut. Badakit maiean etzanda jartzea zer dan. Da ez daukat kejarik txikienik iñorentzat, ez sendagille ez gaixozai. Ezta mantenduarekin ere, larre motxean azitakoa naiz-ta. Eskerrak biotz-biotzez danai.

Badet beste jende-sail bat eskertu bearrekoa: nere bixitalariak. Nik merezi baño obeto portatua da jendea. Ez nun ardo gozo paltarik; ezta txanpain da gañontzekorik ere.

Badaukat zeñi ordaindua. Sarri esan izan dedana: zorrak utzita il bearko.

Gaur ainbeste keja entzutea ez naiz batere arritzen, konforma-gaitzak jarri gera-ta.

Bezperako ogia jan bearra tokatzen bazai-
gu, asarretu egiten gera. Etxean egun erdi ba-
tean indarra edo ura paltatzen bada, ez da giro
izango. Soldadu dagon mutil batek zortzi egun
baño geiago etxera etorri gabe badaramazki,
mundua gañera datorkiola pentsatuko du. Kilo-
metro bide oñez egin baño, naiago degu kamio-
bazterrean beatza altxata jarri. Pestara joan ez-
kero, txanpaina edan bear degu derrior. Baso-
lanik eta lan zakarrik ezta pentsatu ere. Ofizina
bateko lana gogozkoena.

Bizimodu txarretik onera pasatzearekin da-
nok poztu bear genduke. Nik kezka bat daukat
ordea: guk artu degun trote au gezurrezkoa ote
dan. Onela irauteko kapaz izango ote gera?

Itxaso ere gora ta beera ibiltzen da. Bolaraz
bapo asarretu ere bai. Zakarraldi oietakoren
batean ez dedilla ondoratu gure ontzia.

Gogorapen batzuk: Eskolako liburuetan
ikasi gendunez, lurretik eguzkira 150.000.000
kilometro daude. Illargira, berriz, 385.000. Be-
raz, eguzki ta illargi arteko tarterik motxena,
149.615.000 kilometrokoa da. Irun'go bi aitone-
ri buruz Txirritak kantatu zun bertsoa datorkit
gogora:

Aitona batek besteai galde
egiten zion lenguan:
eguzkitikan illargiraño
zenbatsu bide zeguan.

Erantzun zion: «Txit gertu dituk,
kasik alkarren onduan,
amaika edo amabi metro,
orain ez daukat goguan».
Obe litzake pilloagorik
gaur ez balego munduan.

Sarri pentsatu izan det nik ere, obe litzakela
pilloagorik gaur ez balego munduan.

Bada, ba, oraintxe kolejioa, jakinduria, li-
burua ta jende azkarra pranko. Sinistu ezin aña-
ko aurrerapenak gure esku.

Ta, gezurra badiruri ere, sekula baño kon-
forma-gaitzago bizi gera.

(El Diario Vasco, 1983-XI-16)

IGARATZA

1983'ko Urriaren 30'a egun gogoangarria Igaratza'rako, ogei ta amasei udaratan jaiero-jaiero bertako ermitatxoan meza eman dun Aita Alberto, Lazkao'n bizi dan beneditinoa, omentzen baizuten.

Tolosa eta beste erri askotako mendigoizaleak bazuten babes-leku bat Igaratza'n. Kezka bat nabarmendu zan, ordea, ango artzai ta jende jator onen artean: igandeko meza nun entzunik etzeukatela San Migel'eko gaña izan ezik, da au oso urruti egiten zitzaien.

Gasteiz'ko Gotzaiari baimena eskatu ta 1946'an altxa zuten dalako ermitatxoa, aldarea ta meza-emalea bere akolitoakin justu-justu babesten zitun estalpea. Geroztik egiñak omen dira sankristia ta jendearentzat tokia.

Lenengo urtean, Tolosa'ko eskolapioak joaten omen ziran meza ematera. Baña gero, lan asko zeukatelako eta eziñarengatik, utzi egin

zuten. Da orduko Pantxo Labaien tolosar jatorra, gaur zana, Lazkao'ko konbentura zuzendu zan, ea igandero meza emango zuten Igaratza'n esanez. Aita Albertok artu zun kargu ori.

Maiatzaren aurrenetik Urriaren azkena arte izaten zan eginkizun ori. Urte-mordo batean, Lazkao'tik Lizarrusti'ra bizikletan etortzen omen zan, da emendik Igaratza'raño oñez. Bi orduko mendi-bidea omen da.

Ondo gosaldu dun batentzat ori ez dala ezer, zion. Baña garai artan, gaurko aldean, lege estuak zeuden. Bezpera gaueko amabietatik ezer jan da edan gabe egon bear zun meza-emaleak eta Jauna artu nai zunak.

Udarako eguzki-galgatan, goseak baño geiago egarriak penatzen omen zun. Izarditan pats iristen omen zan ermitatxora. Meza emanda lenengo lana, ur-trago eder bat egitea izaten omen zun. Zenbait garaitan, edaten degun txanpaña baño obea izango zan seguru asko.

Gertakizun polita: 1947'ko maiatzaren lenengo igandean eman zun lenengo meza, esandako mendi zoragarrian. Elur ikusgarria egin omen zun mara-mara. Ta ogei ta amasei urte pasata, bere omen-egunean, elurra berriz ere. Amar bat zentimetroko elurra, alajañetan. San Simon pasea izan nunbait.

Uste gabeko ekaitzaldia zanez, artzai danak mendian arrapatu zitun, da goizean bakoitza al zun bezela erretiratu bearrean gertatu zan. Orregatik, ain maitea duten Aita Albertoren ondoan etzuten egoterik izan bere omen-egunean. Baña bazan mendigoizale ugari.

Egualdi itxurazko bat izan balitz, zer gertatuko ote zan?

Eguardiko ordubatean meza santua, Donosti'ko Gotzai Setien jauna buru zala. Laguntzalleak, Aita Alberto, onen illoba bat, Lazkao'ko konbentuan dagona au ere, ta Don Jose, Gotzaiaren sekretarioa.

Gotzai jaunak itzaldi goxo bat egin zigun. Baita Aita Albertok ere, danai esker beroak eman ez. Erri-otoitzean, Lizaso'k eta biok kantatu giñuzen egunari zegozkion bertsoak. Meza-ren bukaeran, Diputazioaren izenean, Aizarna jaunak medalla bat eman zion omenduari.

Amaika aldiz esan det eta mendietako elizkizunak badute zeru-kutsu berezia.

Alkartasun-bazkarian alkartu giñan ondoren, mendigoizaleak daukaten txabol zoragarrian. Maitasunezko lurriña nagusitu zala esan bear. Zillarrezko bandeja eder bat ere erregalatu zioten egunaren oroigarri.

Ataun'go semea degu Aita Alberto, Don Jose Migel Barandiaran'en lengusua. Larogei ta zortzi urte dauzka ta edozeñen pare bazkaldu zun. Mendiko aizeak edo zerbaitek on egin dio. Ala zion:

–Gaur Igaratza'ra etortzea ez da ezer.

Pista ederra dagonez, automobillean joan baileike bertara. Bereak eta bi ikusia egongo da gizon agurgarri au. 1919'an, Erroma'n omen zegon estudiatzen. Gerra mundiala bukatu berria zanez, gosete ikaragarria sortu omen zan Itali'n. Emengo anai artekoaren berri badakigu, berriz. Orduko agintariak eriotz-zigorrera epai-

tu zuten, beste euskaldun asko bezela. Bañan etzioten alakorik eman, Jaunari eskerrak.

Zer liburu zoragarria egin liteken gizon onen bizitza kontatuz! Gizon apal jakintsu langilleak asko eman ditu Euskalerrriak. Oietako bat Aita Alberto Begiristain. Igaratza-zaleak ez daukate saltzeko.

Itxasoaren gañetik 1.233 metroko altura dauka paraje zoragarri onek. Gipuzkoa'ko terrenotan dago justu-justu. Garai batean, mikelleteak eta kontrabandistak izaten omen zuten naiko lan, Naparro'ko zagi ardoak zirala ta etzirala.

Mendi zoragarri oietara dauden pista edo autobideen kontrarioak ditugu gaur asko. Badakit artzai ta mendiaren etsaiak erreztasuna ematen zaiela. Pista oiek galeraztea baño, egoikiagoa iruditzen zait mendian nola ibilli bear dan jendeari erakustea ta pekatu egiten dunari bere zigorra ematea. Bide oiek diralako, artzai geienak *landrover* edo kotxea daukate, beren bizibiderako serbizio ederra egiten dutenak. Kaleko jendeak bakarrik bear al ditu aurrerape-nak? Gure artzai jatorrak orain berreun urte bezela bizi bear al dute? Ainbeste arkume, gazta ta esne gozo sortzen dizkiguten artzaiak, me-rezi dute tratamentu ohea.

Zorionak ta urte askotarako, Aita Alberto, zeure artzai ta mendigoizaleekin.

(*El Diario Vasco*, 1983-XI-24)

EIZTARIAK ASARRE

Agorraren 23'an, *El Diario Vasco* egunkari ontan zetorren nere lan bat. Esaera zar baten berri ematen nun. Alegia, aurten ezkur-urte ona zala ta uso-urtea izango zala, «ezkur-urte, uso-urte» egiztatzen bazan.

Joan zan, ba, zorioneko usotako ill ori ere. Zorionez, eiztari lagun asko det errian da kanpoan. Anai bat ere bai, beti eizean ibiliko litzakena. Berai esker, ni baño eize gutxiago jandakoren bat izango da.

Batekin da besteakin itzegin det eta geienak ez daude konforme aurtengo usotarekin. Giro on asko izan zala; usoa erruz ikusi ere bai, baño tirabidetik urruti.

Aiek ere bizia nai nunbait. Onoko au pentsatu izan det sarri: Pama piska bat duten leku guztietan eten gabeko danbarra; pesta batean bezela kotxeak eta motoak; da azkar ta ondo egan da zer denborale datorren dakiten oiek,

goitik etortzen eta makarrik gabeko begiakin gañera.

Au ere jakin nun lagun-talde batengandik: subastaren bidez, seireun milla pezetan artu omen zuten mendi bat, ta berrogei ta amar uso ilko omen ziran geienaz. Kontuak ateratzen baditugu, amabi milla pezeta etorriko da uso ba-koitzeko. Kartutxo ta gañerako gastuak erasten badizkiogu, berriz...

Bizio eta kapritxo garesti asko egongo da munduan. Ni ere iritxi izan naiz ederki ordain-tzera. Baña eiz-kontu ori ere garestienetan jarri bearko degu. Nai duten guztiak ez dituzte bete-ko beren kutixiak.

Iparretik Egoara milloika pizti pasatzen zaizkigu epeltasun billa: uso, kurrillo, antzar, ollagor, ta abar ta abar. Emen baño polbora gutxiago dagon parajeak badaude nunbait ere.

Mundu ontan gizonak ezin gerala kabituen-tzuten degu sarritan. Lurralde guztira berdin partituko bagaña, batetik bestera tarte ederra izango litzake. Ainbeste pizti mantentzen dan lekuan, amabost zoruko etxerik ez da egongo, seguru asko.

Galdera au ere egiten degu askotan: Urriko illa dala, nola asmatzen ote dute? Ta nora joan bear duten da abar.

Jakintsu asko da gai ortaz mintzatu dana. Baña erantzun zeatzik oraindik iñork etzun emango. Erantzun bakarra billatzen diet nik galdera oiei ta beste askori: Jaungoikoak alaxe nai izan zula.

Gaur jende asko omen dago, Jaungoikorik

ez dala esaten ari dana. Zeru ta lurren Jabea
badala sinisteko, ez dago begiak asko zabaldu
bearrik. Ez orixe!

Orrenbeste eiztari
mendi-puntâ juten,
usoak botatzea
amets ori zuten.
Argi egon naiz oien
kontuak entzuten,
apenas enpatxurik
arrapatu duten.

Goizeko bostetako
ertenda mendira,
zer aize-klase dagon
lañoai begira.
Pardela ariñakin
etxerako jira,
usteak ustel sarri
gertatutzen dira.

Ainbeste tiro tiraz
jakin gabe nori,
ta ezer esaterik
ez dago askori.
Danbar izugarriak
naiz izan bi txori,
usoak urrutitik
sumatzen du ori.

Gerran itxura dago
gure mendietan,

egoaizeak indar
dun egoaldietan.
Da usoak bidea
artzen du goietan.
makarrrik ez baidago
aien begietan.

Eskupeta garbitu,
kartutxok erosi,
beste arazo danak
bazterrean utzi.
Mendi-muturreraño
kotxe eta guzi,
ilusio asko ta
etekiñez gutxi.

O, eiztari maiteak,
entzun zaidazute:
Usoak Afrika'ra
pasa zaizkizute.
Itxaropenik beintzat
galdu etzazute,
bueltan datozenean
zaindu itzazute.

(El Diario Vasco, 1983-XI-25)

TOLOSA'KO GANADU-TXAPELKETA

Peria dala edo joku pamaturen bat dala, bileraleku aparta izan da Tolosa, ta ala jarraitzeko itxurak dira oraingoz. Gipuzkoa'n baziran, bai, asteko ganadu-peri pamatuak geiago ere: Ordizi, Ernani, Irun da abar. Xenpelarren betroi pamatuaren trataoa ere Ernani'n egin zan:

Joan dan ostegunean
amabost Ernani'n,
betroi baten trataoa
genduan egin...

Baña azken urte auetan, Tolosa bakarrik gelditu zan asteko ganadu-perirako, ta or izaten zan saltxa ori dana.

Agintariak, peri-plaza zaarra jende asko bizi zan lekuan zegolako edo sanidadearengatik egokia etzegolako, peri-plaza berria egitea pentsatu zuten.

Egin bear bazan, bai egin ere jendea dudatik ateratzeko modukoa. 1982'an burutu zuten egi-

teko ori. Plaza estalia danez, etxeko ikulluan bezelaxe egon litezke ganaduak. Urte onen asieratik, asteleneroko peria plaza berrian asi zan. Apirillaren 25'an, an izan zan Garaikoe-txea jauna, Euskadi'ko lendakaria, obra berria ikusten. Arriturik gelditu omen zan.

Baña Azaroaren 6'a arte zabalkunde ofizia-lik etzun izan. Ortarako, ganadu-txapelketa bat probintzi-mallan antolatu zuten tolosarrak, Eusko Jaurlaritza, Diputazio ta Aurrezki Ku-txaren laguntzarekin.

Ez gendun guk bakarrik pentsatu Tolosa-ratzea. 1983'ko Azaroaren 6'a egun gogoanga-rria gertatu zan, noizbait probintziko uriburu izan zanarentzat. Bazan zer ikusia; bai ganadu ederrik ere. Au entzuten zan askoren agotik:

—Oraindik bazaudek basarritar jatorrak.

Jendea, berriz, nunaikoa. Oñati'koa bezela ikusiko zan Irun'goa. Nekazaria bezela mekani-koa edo ofizinista. Basarria izan Euskalerrriaren asiera, ta danok sentitzen alako zerbait biotza-ren ondoan.

Pirenaika (gorria) arrazako beirik onenaren saria, Eskoriaza'ko Feliziano Pagaldai'ren beia-rentzat izan zan. Frisonarena (holandesa), gure adiskide min dan Irun'go Lastaola'rentzat. Onek bost bei ekarri zitun arraza berekoak. Iru lenengo sariak berarentzat izan ziran. Azkenik, Parda Alpinarena (suiza), Amasa'ko Inazio Iraola'ren bearentzat. Ganadu auk, eta beste askok, besarkatzeko gogoia ematen zuten. Auen illajeak eta gañerakoak, almitz belarra janda ez dira izaten. Ez orixe!

Ogei ta iru biga holandesak subastatu ziran, Gipuzkoa'ko basarritan jaioak danak. Bazuten ixtimazioa. Zer esan nai du onek? Gipuzkoa'ko basarrietan sortu litezkela beiak, Santander'era eta Dinamarca'ra billa joan gabe. Ez luke gutxi irabaziko gure nekazariak. Adibidez, emengo basarritarrak Santander'era zenbat diru bialdu dun, Jaungoikoak bakarrik daki.

Nere iritziz, akats bat izan zuten jai-antolatzaileak: bi eguneko lanak egun baterako jarri zituzten da gauz asko ezin ondo erten. Bei onenak zein ziran da abar, bezperan erabaki bear zan; da, urrengo egunean, letrero orrekin jarri, jendeak lasai ikusi ta maixiatu zitzan, da garai polit batean sariak banatu. Ez, ibili ziran bezela, arratsaldeko ordubiterdietan sariak partitu eziñik, jende asko bazkaltzera joanda ta beste asko joateko amorratzen.

Lizaso ta biok bertsoetara joanak giñan; baña ez gendun tarterik izan. Jendea prankok, bai, galdetu zigun noiz kantatu bear gendun. Guk zer esango genien? Bestela ere naiko lan bazala.

Orrelako txapelketak ugariago bear luteke, ta ez esne-beiarenak bakarrik, basarriko ganadu-klase danenak baizik: asto, txerri ta abar. Tolosa ez litzake punturik txarrena izango. Zorionak tolosar ta parte artu zenduten guztioi. Ta aurrerako asmotan dauden basarritarrak, izan dezatela beren lanaren egitazko saria.

Billera-leku aparta beti
izandu degu Tolosa,

amaika aldiz entzuna len e
basarritarren abotsa.
Geren etxeko oitura gendun,
ez pentsa zanik arrotza,
nekazaria bizi zaigula
orrek ematen du poza.

Joandako danak gozatu gera
noski Tolosa'ko periz,
makiña batek galdetzen zuten:
Noiz izango degu berriz?
Iñor bada-ta basarritarra
dago laguntzaren premiz,
obe genduke beren bizitzaz
kontentu baldin balebilz.

Mendi aldean ez da sumatzen
lenago aïnbeste zori,
zutikan ezin egon dan ura
lurrera oi da erori.
Basarritarrai lagundutzea
tokatzen zaigu danori,
Euskalerrria galdu liteke
iñoiz galtzen bada ori.

(El Diario Vasco, 1983-XII-6)

AIZKOLARI-TXAPELKETA

Nere lan au argitaratzerako, Tolosa'ko aizkolari-txapelketa ederki jorratua izango da. Ala ere jarri ditzadan nere atxurkadak.

Azaroaren 13'an, egoardiko amabi t'erdietan, zoragarri zegon Tolosa'ko zezen-plaza. Esan zitekean eguzkiak ere ikusi nai zula norgeiagoka ura. Udaberriko egun bat geiago zirudin, udazkenekoa baño.

Euskaldun basarritarrak bai ote du aizkoljokoa baño kirol maiteagorik? Plazaren erdian sei enbor-illera, beste ainbeste gizonentzako dotore jarriak ala ere.

Txapelketa asi aurretik, orru auek entzuten ziran korredoreengandik:

–Arria bigarrena aurrena baietz! Mindegia aurrena baietz! Mendizabal aurren bigarren baietz! Ugarteburu iru aurrenekoetan baietz!

Ta abar. Ikusten dezuten bezela, jokatu nai zunarentzat bazan aukera. Nere iritziz, diru askorik etzan jokatu, ori ere urritzen ari zaigu-ta,

beste gauz asko bezelaxe. Askotan bezela, xentimorik jokatu ez gendunak pasa giñuzen unerik goxoenak. Begira egoteko ikusgarria baitzan Tolosa'koa.

Danok dakizuten bezela, emankizun au izan zan: Mindegia lenengo; Mendizabal bigarren; Ugarteburu irugarren; Arria bigarrena laugarren; Arria irugarrena bosgarren; da Arrospide seigarren. Naparroa ain aizkolari-leku izan arren, bat zan naparra ta bera erten 1983'ko aizkolarien txapeldun. Beste bostak gipuzkoarrek ziran.

Norgeiagoka bukatu ondoren, jakintsu asko giñan. Dana bagenekigun da ordura arte zergatik ixilik eta mutu, naiko diru irabazi besterik ez ta?

Ardandegi, soziedade ta urrengo eguneko Tolosa'ko perian aotan geiena erabilli zana, Arria bigarrena izan zan: Arriak au egin zula. Nai izan balu, aurrena aterako zala. Gaixo-itxura aiek gezurrezkoak zirala. Basarri bat erosteko aña diru eraman zula Tolosa'tik, da abar.

Nik ez dakit zer gertatu zitzaion. Egia au da, ordea: Punta-puntako joko-gizonak ere badaukatela naiko lan. Aurrena egin bear dute derrior. Bestela ez gera gozoak jarriko. Lurreraño jetxiko ditugu. Itzik gordiñenak berentzat izango dira. Ta egun txarrak da uste gabeko naigabeak danontzat etortzen. Txarrenarentzat bezela onenarentzat. Latasa'k Donosti'ko zezenplazan Luxia'ri irabazi zionean, askorentzat Luxia'k tongo egin zun. Ondorengo urteetan garbi azaldu zan, ordea, Sunbillarra nor zan. Ixildu arazi zitun berriketak.

Euskal jokoak, duten edertasun guztiarekin, badute akats bat: dirua tarteko. Ta onek ibiltzen munduko kurpilla.

Zorionak danai ta batez ere Ezkurra'ko Mindegia aztu eziñari.

Mindegia:

Ezkurra'n jaio ziñan semea,
aizkoran gogoa zendun,
Tolosa'raño etorri eta
etzera joan alargun.
Merezi dezun aitormenetan
gaude ainbeste euskaldun:
zu zeradela gaur eguneko
aizkolarien txapeldun.

Mendizabal:

O, Aduna'ko mutil lerdena,
zuk egin dezu zeurea,
bai al dakizu nola eskertu
zeru ta lurren Jabea?
Lan aundietan ona zerala
jakitun zegon jendea,
bitartekotan bigarren malla
zuretzat dago ordea.

Ugarteburu:

Ezkio'tik etorri dan onek
geienak arritu gaitu:
sei aizkolari lanean eta
irugarrengo amaitu.
Larogei kilo iritxitzeko
iru bat paltako ditu,

zeñek burutu zenbaitek ditun
gorputz-moldeak balitu?

Arria bigarrena:

Zezen-plazara asko joan ziran
zu lenengo ikusteko,
laugarren mallan gelditutzea
iñork ez gendun usteko.
Ainbat iritzi entzunagatik
bateko eta besteko,
egia au da: gutxi bear da
goitikan bera jeixteko.

Arria irugarrena:

Bi anaiak or illera bana
alkarren urre zenduten,
mundu onetan beti zalla da
naierara erantzuten.
Enbor gañean lan egiteko
ai zer gorputz daukazuten!
Ea urrena suerte ohea
biok izaten dezuten.

Arrospide:

Azkena ere batek bear du,
Arrospide'ri tokatu,
baña mutillik oraindik ez da
ederkiago jokatu:
galga batean bere lan danak
apaltasunez bukatu;
bere marka're or gelditzen da
iñork nai badu probatu.

(El Diario Vasco, 1983-XII-9)

SAN SIMON ETA JUDA

Nere lan au argitaratzerako egun-mordoska bat joango da seguru asko; baña San Simon egunean arj naiz idazten.

Gure aita zanari amaika aldiz entzun genion: «San Simon eta Juda, udara joanda negua eldu da; gure artzai gaixoa mendian galdu da». Esatera onek esaten digu garbi zer datorkigun emendik aurrera: neguaren agerraldiakin ez gaitzela arritu.

Iñor bada-ta, artzaia izango da neguari bildurrik geiena diona. Izan ere, ainbat animali mantendu egin bear dira. Onuzkero, beera begira jarrita daude menditar jator auek. Erriberetan ere elur ta izotza izaten dira, ordea; ta sarritan, udarako irabazirik geienak negu petralak kentzen dizkio artzai gizarajoari.

Badago ganadu-zaleak baño kezka gutxiagorekin ogia irabazten dunik.

Neguko beste esaera bat: «Elurrak ateak ixten ditu». Mandioak eta ganbarak belarrez ta

pentsuz beteta dauzkatenak, bai, egon litezke atea itxita. Baña jan bear onek komeriak ditu.

Gaurko mundu berri ontan, elurra ere atirikitzalle ta negozio-bide biurtu zaigu leku askotan. Euskalerrian bertan, da emendik oso urruti gabe, adibidez, Candanchú ta Formigal'en. Bakoitzak bere jolas-bideak.

Beste urte-muga bat ere badegu gaurko ontan: botazioak giñuzen joan dan urtean gaurko egunez. Felipe González aukeratu zan Españi'ko lendakari ta urtebete badaramaki agintzen.

Aurretik entzun gendun sermoi ederrik. Bai orixe! Partidu irabazle orrek geiena agindu zuna, *cambio* izan zan. Da zer aldaketa billatzen dezu, irakurle? Lan-eskaxiak berdin jarraitzen du. Bizimoduko prezioak goraka dijoazte. Gorrotoak da ikusi eziñak, lengo bidean. Guraso ta seme-alaben artean naigabe berdiñak. Arrantzaleak eta nekazariak bururik altxa eziñik. Da okerrena: anaiak alkar iltzen.

Politiko askoren izketaldiak, ezkontzera dijoazten maite-minduenen antzekoak juzkatzzen ditut:

–Ezkontzen geranean, zoriontsu izango gera. Zu ainbeste ez det iñor maite. Zure esanak zintzo egingo ditut. Zu naigabetzea baño, naigo det il!

Ta bearbada, ezkondu ta denbora askora baño len, akerraren adarrak baño okerrago. «Mundu engañagarria» dio kanta zaar batek.

Aitatutako botazio oien aurretik bertso batzuk jarri nitun. Oraindik iñun etziran argitaratu. Arrazoi nun edo ez, zuk esan, irakurle.

Zorionean etorri bedi
aurten San Simon eguna,
«udara joanda negua eldu da»
da guk ikasi genduna.
Udaberria edo udara
da aurten datorkiguna,
gezurrezkoa ez bada beintzat
politikoen jarduna.

Ainbat Alderdi ainbat berri on
eskeintzen dizkigutenak,
seguru asko lautatik iru
sinistu ezin leizkenak.
Gezurrik gabe itzegiteak
eman al zitun azkenak?
Guk nai ditugu agintariak
egiakin datozenak.

Alkar iltzeak utzi ditzagun,
dago pake-egarria,
komeni zaigu indartutzea
maitetasun-lokarria.
Edo bestela gañean degu
uste gabeko arria.
Euskerak ere artuko luke
egizko udaberria.

Gure onerako izan dedilla
ematen degun pausoa,
piska benikan ondu ditezen
erria edo auzoa.
Gu bakarrikan ez gaude gaizki
baizikan mundu osoa,

aundinai onek sarri galtzen du
gure irripar gozoa.

Lana egingo genduke baño
jornal onaren trukera,
zazpi pausotan igo nai degu
langilletikan dukera.
Gorroto eta inbiritikan
oraintxe bada aukera,
galga onetan ezin iritxi
maitasunezko pakera.

Ez dago zertan asarreturik
emen zar eta gazteak,
petralkeritik etortzen dira
burruka eta nasteak.
Bakoitzak bere pentsamentuak,
bakoitzak bere usteak,
geren sallean aleginduta
errespetatu besteak.

(El Diario Vasco, 1983-XII-10)

ESAERA ZARRAK

Etxe txarreko maiztarra, goizean goiztarra.

Gure Euskalerra malkartsu ontan basarri kaskar asko da, zorigaitzean. Senide-pil ederra azitakoak ere ez gutxi, baña bizimodu latza ta gogorra eramanez. Basarri askotan, ura ere nai-ko urruti zutela. Gaur ordubeteko kentzen badigute, ez gera gozoak jartzen. Gañera, geienak maiztarrak ziranez, etzegon goizean lo egoterik. Ortik sortuko zan esaera ori.

Basarritar bati entzuna etzait aztutzen: Goizean goiz jekitzen zanarekin, edozein negozio-klase jarri litekela.

Orain, goizean nai-ko lo eginda nai ditugu negozio onak, eta zail samarra derizkiot.

Oraindik ollo-lurrean.

Gaurko gazteetan ez da asko izango esaera onen berri ta esan-naia dakienik. Etxekoandre bati ala galdetu nion bein. (Banekin gaizki egonda jeikitzen asia zula senarra.)

–Zuen gizon ori asi omen da jeikitzen da paseatzen...

–Bai; baña oraindik ollo-lurrean.

Oraindik badira basarriak beren jiran olloak libre ibiltzen dituztenak. Ez dira urrutira joango ta zintzo erretira. Ortik dator esaera jator ori.

Zabiltzan bideak arrapatuko zaitu.

Bai; gabiltzan bideak arrapatuko gaitu, sarri ez badegu ala pentsatzen ere. Maiz asko ikusten deguna da gure mundu xelegre ontan.

Apaiza ta lurra, eman gabe ez dira engañatzen.

Ez, enetxoak, ez. Apaiza ta lurrari eman egin bear zaie. Ala ere, apaiz-kontu orrek indar geiago izango zun lenago. Amarrenak eta primiziak elizari eman bear zitzaizkiola ikasi gendun dotriñan. Amar gurdiko bat, alajaña, klase guztietatik. Erretore-etxeak orren aundiak orretxegatik dirala entzun izan degu, ta badu itxura.

Eman bear orrek danok mintzen gaitu ta basarritarren bat apaizarekin asarretu omen zan. Lurraren gañean izaten zan guztia apaizari zor zitzaiola esan omen zion apaizak. Ta basarritarrak, bere amorruan, urrengo urtean soro guztietan patata egin. Au lurraren azpian izaten baita.

Basarritarrak, berriz, badakigu lurrari emateak zer balio dun. Ez bazaio ematen, berriz, alperrik izango dira alegin guztiak.

Lurra ez da mozkortzen.

Onek lengoaren antza badu. Gizonak, bai, mozkortzen gera. Baita apaiza ta Aita Santua ere, neurritz kanpo edaten badute. Lurra ez dezu

ikusiko balantzaka; ta, denboraz, emandako guztiak sabeleratzen ditu. Azkenik, gizona ere bai.

Mendiak ez dute alkar jotzen; gizonak, bai.

Mendiak orain bi milla urteko lekuan daude, beren lekutik mugitu gabe. Gizonak gabiltza aruntz ta onuntz, usterik gutxienean uste ez dana ikusteko. Piska bat ibilli geranai, askotan gertatu zaigu orrelako zerbait.

Katalin Katalin, auzoko txerriak etxean koi-pe gutxi din.

Auzoari begiratu gabe etxean saiatu bear dala esan naiko du esaera onek. Gaur, berriz, auzoak gobernatzen egiten ditugu egiñalak, da bitartean etxean eduki galtzak bete lan.

Urrutiko intxaurrak amalau; bertaratu ta lau.

Bai. Beti, urrutian obetogo izaten ote dan pentsatzen degu. Euskalerriko seme-alaba asko da munduan zear zabaldua, batzuk derriorrean, besteak beren borondatez. Baña erri-miñez negar egin gabekorik ez da izango. Amerika alde-tik ibilli giñanean, onelako zerbait askotan entzun gendun:

—Orain jarri naiz. Ez det damurik onuntz etorria. Suertea ere izan det, Jaungoikoari esker-rak. Baña gorriak eta bi ikusi nitun etorri berri artan.

Beste batzuingandik, berriz:

—Au jakin bagendu, ezgiñan etorriko. Baña pausoa emana dago ta orain ez dago erremedio-rik.

Gaueko lanak, argitako lotsa.

Gauez egindako lanak, sarri du argitako lo-

tsa. Ala ere, gaur etzaio jaramon aundirik egiten, lotsa galdu baigendun. Gauerako daude prestatuak pestarik onenak. Gu ere ez gera beti erretira onean ibilliak. Baña oraingo onek marka guztiak autsiko zitun. Len esan degunagatik, esaera onek galdu zun bere indarra. Pamilieta-ko negarrak eta buruausteak lenean jarraitzen dute, ordea.

Pakerik txarrena obe, gerrarik onena baño.

Gure artean asko ta asko ditugu azkenengo anai arteko gerra zikin artan ibilliak. Ez dizute gerra-gogorik azalduko. Ez orixe! Bizirik gelditu ziranean, pozik. Lagun asko baidituzte betiko galduak. Da ori azkenengoa izan.

(El Diario Vasco, 1983-XII-30 eta 31)

AGUR BETIKO

Urte-sasoi onetan kontu auxe entzungo dezu bazter guztietan:

–Asko konturatu gabe urtea bukatu zaigu. Atzo asi gendula ematen du, ta bukatuta. Au da martxa daramakiguna, au! Bai; asko oartu gabe, zartzen ari gera.

Baña au da egokia: danok berdin, aberats ta beartsuak, eder eta itxusiak, agintari ta menpekoak. Eguzkiaren abiada danontzat berdin dioa.

Zenbat lagun maite, betiko agurtu zaizkigunak urte ontan? Asko ta asko zaarregi egin gabeak, bizitzaren ametsetan bizi ziranak, da agur betiko.

Nerea noiz izango ote da? Urte au bukatuko ote det edo astera dijoan berri ortan emango ote det azken arnasa?

Urtearen azken egun auek alaitasunerako ta ondo pasatzeko artzen ditugu geienetan. Baña

ala ere galdera zorrotz asko egiten dizkigu kontzientziak:

–Urte au nolakoa izan da neretzat? Zenbat on eta zenbat txar egin det?

Pasatakoa ez dago arrapatzerik. Aurrera begira dezagun, irakurle, itxaropenik galdu gabe. Itxaropena ta bizi-poza galtzen baditugu, dana galdua dago.

Kristo jaio zanetik bi millagarren urtean sartzeko amasei urte palta zaizkigu. Izango da esames ederrik urte-muga ortan.

Mundua orduan bukatuko dala esaten dutenak ere badira. Jakintsu asko nabarmenduko dala iruditzen zait; ta, seguru asko, beste edozein urte bezelakoa izango da.

Joan dan agoztuko uraldeakin gertatu zana: aurretik iñork etzun eman uraldea zetorren berririk; ondorenean, ordea, asi ziran albistek. Ainbeste urtera izango zala bestea; ordura arte etzegola bildurrik eta abar.

Au da komeria: jakintsu egin nai genduke geren burua ta ezin.

Itxaropenik ez galtzeko esan det lenago. Orrelako bildur aundirik gabe badauzkagu zorionez. Bi millagarren urte-bezperako apariak enkargatzen asi omen da jendea. Emendik amasei urterako apariak enkargatzen!...

Urriaren 29'ko *El Diario Vasco*'k ala zekarren: ingles bikote batek Paris'ko *Maxim's*'en enkargatu omen du dalako aparria. Paris'en ibilli giñanean, erakutsi ziguten jatetxe ori nun zegoen. Ez du izan bear gu bezelakoak apaltzeko moduko lekua.

Au ere bada, ba: urrengo egunerako ogia nun duten ez dakitela asko, ta emendik amasei urterako apariaren kezketan besteak. Berdintasunik ikusi gabe joan bearko degu mundu ontatik. Urte guztia Iñauteri zala esan zunak ere, etzun gezurrik esan.

Eguarri ta Urte Berri zorionsuak biotz-biotzez, irakurle. Nik idatzi ta zuek irakurtzeko zoria izan dezagula urte askotan, bi millagarren urterako geiegi arduratu gabe. Ondo bagera, apaltzeko lekua billatuko degu guk ere.

Urte zar onek beteak ditu
zeduzkan eginkizunak,
orain geienak kezkatzen gaitu
berrian etorkizunak.

Argi-dizdirak komeni dira,
aspertu giñun illunak,
maitasuna ta pakea izan
emen palta zaizkigunak.

Ez ote dago iristerikan
anai arteko pakera?
Iñun diraden etsai guztiak
bildu zaizkigu batera.
Okerrenaren bildurrez beti
noiz amilduko gainbera,
ta azkenean kontu berdiñez
urtearen bukaera.

An edo emen okerrik gabe
etzan pasako egunik,

zuzendutzeko bideak berriz
urrun ikusten ditut nik.
Argi-egarriz bizitu arren
ezin da kendu illunik,
ez pentsa gero erru guztiak
urteak izan ditunik.

Garai batean erru guztiak
Elizarenak ziraden,
askon iritziz ainbeste aldiz
alperrik joaten giñaden.
Gaur ortan ez da denborik galtzen
uztea errez nola den,
ikusi degu bizimoduan
zenbat altxatu geraden!

Bi milla urte gertuan dira
Kristo jaio zitzaigula,
borondate oneko gizonai
pakea eskeñi zigula.
Gizonak garbi azaldu degu
pakerik nai ez degula,
zeru ta lurren jabea danak
Berak lagundu deigula.

(El Diario Vasco, 1984-I-4)

AURRERAPENAREN OKERRAK

1983'an, azaroaren 27'ko egunaren asierarekin batera, berri mingotza zabaldu zan mundu guztira Madrid'tik. Oso bakan entzuten degun berria, baña entzuten danean penagarrienetakoa.

Madrid'a zetorren aideplano aundi oietako bat, *Junbo Boeing 747* bere izena; ta, lurrera jetxi bear zun baño segundo batzuk lentxeago, uste gabeko oker batekin, oiartzuarrak esango luteken bezela, txiki-arraio eginda gelditu dana.

Ango iskanbilla ta karraxiak etziran badaezpadakoak izango. Eun da larogei ta amar lagun zekarzkin barruan. Amaika ez beste danak, azken arnasa emanak izan bear dute. Etzuten orrelako askorik pentsatuko. Guztion Jaun Errukitsuak artu ditzala bere ondoan.

Eskerrak egazkiña erdi utsik zetorren. Ontzi oietan bosteun bat lagun ibiltzeko tokiak baيداude.

Kilometroko alturatik erori omen zan, da

era ortako oker batean bizia salbatzea mirari bat bezela da. Bizirik gelditu diranak, badute mundu ontan dauden arteko gogoramena.

Laister zazpi urte badira aideplano berdiñean Argentina'tik joan-etorria egin gendula. Zoragarrizko piztiak dira. Amaika eserleku illeran zabaleko aldera, erdian bi pasillo ditula; ta bertan sukalde, denda, zine, komon da abar. Autobusetan oituta gaudenontzat arrigarria benetan.

Goiko zero alde ortan goazela, au pentsatzen nun sarritan:

-Amerika'ra joaten illabeteak bear zituzten aiek begira baleude, zer esango ote luteke?

Aruntzakoan, Brasil'ko San Paulo'n egin gendun jexkera bat. Andik Buenos Aires'era bi ordu pasa giñuzen. Etortzerakoan, ordea, Buenos Aires'tik Madrid'a gelditu gabe etorri giñan amabi orduan, ia bosteun laguneko jende pilla, amabi kilometroko alturan da orduko milla kilometroko abiadan. Sinisteak ere lanak ditu.

Esan zigutenez, zenbat eta altura aundia goa, orduan da segurantzi geiago omen dago. Izan ere, laño, trumoi ta tximistak oso beran gelditzen dira altura ortatik. Ta okerrik geienak, lurretik altxatzerakoan da jeixterakoan gertatzen dira. Oraingo au testigu.

Bada aurrerapena; ta, okerra gertatzen danean ere, aundia bear derrior.

Urte-mordo ederra bada, Basarri gure adiskide miñak bertso auek jarri zitula, orduan ere aideplanoren bat eroria izan bear zun-da:

Jendea asia dago
orain goiko bidez,
beko trastek utzita
lañotara iges.
Txori onak baña egan
ez dakite legez,
aurrerapen asko ta
segurantzirik ez.

Ezin pia liteke,
jaunak, egazkiñez,
berri txarrak betetzen
gaituzte gu miñez.
Bide luzea ez bada
jarrai zagun oñez,
bestela tren zarretan
balantzak egiñez.

Oñez ibiltze orri aspaldi egin genion uko,
bide luzea da motzean. Oñetakoak ondatze orri
bildur izugarria diogu. Naiago degu beatza al-
txata estatua moduan kamio-bazterrean egon.

Balantzaka dabiltzan tren zarretan, berriz,
gero eta jende gutxiago ibiliko da. Biotzean pe-
na gendula betiko agurtu ziran Leitzaran'goa,
Bidasoa'koa ta abar. Ta geiago ere izkutatuko
zaizkigu noski.

Ainbeste tunel ta lan gaurko aurrerapenik
gabe egiten jardun ziranak, etziran uste ortan
nekatuko.

Len esan dedana, egazkin-okerra aundia
izaten dala. Baña kamioa dago gaur eriotzik eta
odolik geiena ikusten duna. Eun da larogei la-

gun kamioan iltzeko ta beste ainbeste elbarritzeko, ez du illabete asko pasa bearrik. Da esan liteke, kamiorik gabe ez dagola bizitzerik.

Itxas-gizon batek esan zidana gogoan izaten det beti:

–Itxasoan ibiltzeaz jende asko bildurtu egingen da; baña gaur ere mundu guztian itxasoan etzan ezer gertatuko, ta kamioan, berriz, dozenaka ilko ziran.

Arrazoi galanta berea, ta goiko bide oiengatik ere berdin esan liteke.

Gizona gero eta geiago estudiatzen joango da; baña deskuidoak beti aurrea arrapatuko dio. Garai bateko okerrak, zaldi baten gañetik erortzea edo ostikoren bat artzea ta antzekoak izango ziran. Gaur, nolako aurrerapenak, alako okerrak.

«Asko ikasi nun, asko ikasi nun, danen bearra izan nun» dio esaera zarrak.

(El Diario Vasco, 12-I-1984)

ZERRI ILTZEA

Euskalerriko basarrietako pamili-pestarik aunditxoena zerri iltzeko egunean izango zan ba. Erriko pestak etortzeko baño irrikizio geiago edukitzen gendun egun ori etortzeko. Izan ere, beste garai batzuk ziran. Gerra ondorengo urte gogorak. Errazionamentuan aragia ta olioa, beste jan-gauz danak bezelaxe; ta jan bear onek komeriak ditu. Ganbarako artapillaren puska aundi bat, urterako zerria gizentzeko izango zan. Amasei bat arroa (berreun kilo) baldin bazan, oso ona zan. Izango zun urdai puska-ederrik. San Martiñak pasa ezkerero asiko zitzaion jendea begiraka:

–Ainbeste arroa badek eta Eguarritarako il bear diagu.

Edo:

–Ilbeltzaren azken alderako iltzeko moduan izango dek.

Ta abar. Animalirik ez da izango, basarrian iltzeko dagon zerriak baño bizimodu ohea era-

maten dunik. Naikoa jan da edan da etzan, illuntzero etxe inguruan paseo bat emanaz.

Euskaldun geienak jakingo dute orain jartzera nijoan ipui au, baña tira: Ikullu batean zerria ta astoa bizi omen ziran. Asto gizarajoa egunero lanean da kargatan. Izan ere, basarriko astoak aña serbizio egindakorik bai ote da? Kalerako joan-etorri dana; ganadu-jatekoak eka-
rri; baita arta-besarean ere. Ta ori dana, beste iñork jan nai etzuna janez askotan.

Ala omen zion dalako zerriak:

–I or abil egunero lanean da nekepean da gaizki janez. Bizkarreko ederrak ere ematen dizkitek tarteka. Alde ederra zegok nere bizi-modura.

Astoak:

–Bezperan janik eman gabe edukitzen auten egun artan ikusiko dek.

Iltzeko bezperan ez baizaio janik ematen, tripak garbitzen lan gutxiago izatearren. Errian izango zan zerri-iltzaillea, ta ez opiziorik txarrenekoa. Puska goxo pranko janez eramango zun bizimodua.

Al bazan, egualdi otza aukeratuko zan. Urdaia obetogo gogortzen da, elbi aundiaren bildurrik gabe. Illargiak ere zer ikusi aundia du, beste gauz askotan bezela. Zerria iltzeko, ilberan bear du.

Bezperatik asiko ziran prantaketak: tipul ta gañerako barazkiak, da egurrik onenak txikitzen da abar. Parienteren bat edo auzoko emakumeren bat etorriko zan egunean, etxekoandrearri laguntzera.

Goizean etzan izango logurerik. Zerri-iltzalleari galletak anisekin aterako zitzaizkion, da danak erne zerriarekin burrukan asteko. Etxean naiko giza-indar ez bazan, auzokoak etorriko ziran, gustora gañera, gosaltzen naiko gibel jatearren.

Zerria erretzeko badaude su-egille ederrak. Baña basarriko gari-lasto luzea baño oberik ez. Gibela jateko garaian izango zan umorerik. Kanpoan elurra mara-mara ari zula jardun izan gera. Zer orduan basarriko sukalde baztarraren pare?

Emakumeak izango zuten naiko lan antolaketan da odolkiak egiten. Anakak, belarriak eta puskarik goxoenak, erretore, sekretario ta erriko jauntxoentzako izango ziran. Eskera etortzen ziran praileentzako ere esan oi da; baña nik ez det ezagutu.

Gure erriko basarri batean, anakak eta belarriak sekretarioari eramateko oitura omen zuten. Urte batean, bi zerri il omen zituzten. Lenengoan, zintzo eraman omen zizkioten; baña bigarren goan, anakak bakarrik. Sekretarioak, asarre puskarerekin, joan zan mutil koskorrari:

–Zerri onek ez al zun belarririk edo?

Mutil koskorrak:

–Bai; baña oso aundiak zitun da etxean jan giñuzen.

Seguru asko, etzion propina aundirik eman-go.

Basarriko mutil koskorren egitekorik pozgarrina odolkiak partitzea izango zan. Etxe guztietan arrantxo goxoa ta propinatxoa. Apaltze-

ko gogo aundirik gabe etxeratzen giñan. «Zerri ildako astea ta ezkonduako urtea, onenak» dio esaera zaarrak. Aste ori ere lenago izango zan. Gaurko umeak eta ume ez diranak, muzin egi-ten diote zerrikiari. Urdai zuririk ez diezu be-reala jan araziko.

Baña ziri ederrak sartzen dizkigute gaurko arakiñak. Urdai zuririk ez dala saltzen-da, txori-zoetan sartu ta guk jan. Da ura, txorizotan ere, urdai zuria da. Gaur krisisa dagola diogu. Baña urte guztirako jaki zerri bat izaten zanean zego-n krisisa. Lasarte adiskide min da bertsolari jato-rrak bere *Gordean neuzkanak* liburuan dion be-zela:

Urtean txerri on bat
iltzen zan etxian,
puska batzuk egosten
zituzten eltzian,
beste batzuek erre
zartagi beltzian,
amak partitzen zitun
da txukun-antzian.

Gaur, sendagillearengana joan orduko, ze-rrikia galeraziko dizu. Zerrikirik ez litzakela iñoiz jan bear esaten dunik ere bada. Baña, Lasarte'k dion bezela txukun-antzian partitu ez-kero, ez det uste gaitz aundirik egingo liguke-nik.

(*El Diario Vasco*, 1984-II-2)

KINTO-BILLERAK

Azken urte auetan erruz ugaritu dan pestaklasea, kinto-billerarena da. Oso ondo ikusten det ugalmen ori, bizitza naiko tristea da-ta.

Urtean igande bat ez da izango, kinto-billerik an edo emen ez danik. Egunerokoa zabaltzea ta irratia piztutzea naikoa da, alako urtetakoak an da beste oiek emen dutela jakiteko. Ta au da pozgarriena: adin edo edade guztietakoak biltzen dirala.

Euskaldunak otordu onari gusto artzen diogu; baña bazkalondoko alkarrizketari ez gutxiago: batek ura egin zula, besteak ziri ederra sartu ziola, geienak nai orduko etzala bukatu, ta abar.

Izan ere, kuarteleko bizimodu artan danok badegu geren istoritxoa. Egun alaiak eta egun goibelak, bizitza guztian bezelaxe.

Estuasunik aundienak, bandera juratu arteko ikasketa aiekin pasa genitun. Kastellanoz ere ala moduz moldatzen giñan-da.

Burgos'era egokitu zitzaidan neri. Ango

kuartel guztietan bagiñan euskaldunak. Taberna jakiñak izaten giñuzen arrantxorako. Izaten gendun zertaz itzegin. Nai baño lenago etortzen zan kuartereratu bearra.

Lagun batek kontatua: Kuartel ondoko zelai batean *teorikan* omen zeuden. Sarjentoa an ari omen zan galdezka. Bati, kapitanak zenbat izar zitun. Besteari, komandateak zenbat izar eta zenbat puntakoak. Alako batean, gure lagun orri:

-*A ver, vasco: ¿qué lleva el sargento?*

Euskaldun jatorrak, zutik jarrita:

-*Tres galones sucios.*

Ango algarak ez omen ziran makalak. Izan ere, sarjento oiek alaxe ibiltzen ziran geienean. Urrengo, ordea, galoi garbi ta berriakin etorri omen zan.

Gaurko gazteak ez daukate soldadutzara joan bearrik, bazterrak ikusteko, kastillanoz zerbait jakiteko eta argitzeko.

Alderdi ortatik, ordea, guri mesede egin zigula esan bear urte ta erdiko morrontza arek.

Bizi guztiko lagunik onenak ere antxe egingdakoak izan litezke. Kinto-billerak dira testigu.

Azken aldi ontan bada beste nobedade bat ere: billera oiek egiten andre ta guzti asi dirala.

Danak ez dira izango iritzi berdiñekoak; baña nik ondo ikusten det. Berandu benik, euskalduna asi da emakumea aintzat artzen. Batez ere basarritarra.

Emakume supriturik izan bada Euskalerrian, basarriko etxeandrea izan da.

Gizonak billatuko zun kalera edo perira joa-

teko aitzakia. Txekorra saldu bear zala, arakiñarekin itzegin bear zula, bei bat geiago mantentzeko jana ganbaran bazegola, sega edo beste tresnaren bat erosi bear zala ta anka basarritik. Ori ondo dago; baña etorrera izaten zan xelebrea askotan.

Bitartean, andre gaixoa antxe: seme-alabai aparia eman, beiak jetzi, ikulluko lan guztiak egin ta oiera kezkatsu, bere gizona nola ote zebillen pentsatzen.

Etxekoandre orren erronomia, berriz, urtean bein Arantzazu'ra edo antzekoren batera, egiten bazun, izango zan. Merkatura edo azokara joango zan, baña denborik galdu gabe etxera, egin bear ziranak eginda. Erriko pestetan ere etzun lan-paltik izango, konbidatuai tripa betetzen.

Oiek danak ala izanik, amar edo amabi ume eder azitako basarri asko da Euskadi'n.

Monumenturik edo estatuarike iñork merezi badu, orain arte basarrian izan diran etxekoandreak merezi dute.

Gaur, zorionez, gauzak aldatzen dijoaz. Kalleko etxekoandreak eta basarrikoaren bizi-modua alde aundirik gabea izan liteke. Oporretara edo ibillaldiren batera, bat bezela joan liteke bestea.

Emakumeari ezkondu ezkeroko egoak moztu bear zitzaizkiola esaten zun gizona ezagutu nun. Ez det uste arrazoi osorik zunik. Egoak ondo etortzen baidira lurrean ezin ibilli danerako.

Egia da etxekoandrea dula izena; etxekogizona ere ona izango da pamilirako. Noizik eta

bein kanpoko aizeak, berriz, ñori ez digu kalte-rik egingo. Pozak eta naigabeak alkarrekin pasata, askoz ederragoak izango gera.

Ea emendik aurrera kinto-billera danak emazte edo emaztegaiakin izaten diran. Biak palta ditugunak, berriz, moldatu egin bear al dan bezela.

(El Diario Vasco, 1984-II-3)

EUSKAL KIROLAK

Euskal kirol edo deporterik geienak lanetik sortuak dira. Esan zitekean, makinak eta aurre-rapenak ugaldu diran ontan, baztertuak bear zutela euskal joko asko. Ez da orrela gertatu, ordea.

Adibidez, idiak egiten zuten lana, gaur tra-toreak egiten dute, ta idi-dema ta jokuak sekula baño ugariago dabiltz.

Itxaso-lanetarako ere badago arrauna baño tresna egokiagorik. Baña ez da giro arraunlarie-kin. Aurtengo udaran gertatu diranak testigu.

Egurak mozteko ta belarrak ebakitzeko, ez dago trontza, aizkora ta segaren bearrik. Tron-tzalari, aizkolari ta segariak aukeran dauzkagu, gezurra badirudi ere.

Garai batean modako ziran jokuetatik, gal-duak ere badira Euskalerrian. Oietako bat, pa-lankariena. Gure aurrekoak esaten zutenez, izan zun indar ederra jolas orrek. Tolosa ingu-ruan, Bidani'n, Gaztelu'n da Berastegi'n izango

ziran pamatuenak, ta Euskadi'ko mugatik kanpora luzituak ere bai.

Gure auzoko mutiko batek bere aitari atariko soro-zelaia artorik egin gabe uzteko esan omen zion, palanka tiratzen ibiltzeagatik. Orrekin esana dago zenbaterañoako zaletasuna zan.

Palankarekin arri zulatzeak ere ia oraintxe arte iraun du. Etzan lan erosoak, ta ikasia bear zun. Ortan ere izaten omen ziran jokuak.

Tolosa'ko plazan jokatu zan batean, irabazleak txoria bere eskuetan ikusi zunean, onela esan omen zion bere anaiak:

—Ai, *hermano*, larre jana,
egoki egiten dek lana,
ere eskutan dek desio uana.

Larre jana, gaizki gobernatua edo erdi goseak bizitua zalako esaten zion. Sardin zarra geiago ikusiko zun, txuleta ederra baño.

Garai batean Euskalerrri guztia basarri zalako ta basarriko semeen lanik maitatuena sega dalako, segarien jokuak izango ziran ixkanbilla geiena aterako zutenak. Iturriotz ta Muatz'ko sukaldeak izketan balekite...

Gaur ere indartsu dago kirol au, zorionez. Bestela, begira Agorraren 18'an Ernani'ko Etxe-atzeko salletan gertatu zan norgeiagokari. Bost segari, alajaña, zein baño zein.

Geiena arritu ginduna bizkaitar bat izan zan, bigarrenengo sariarekin etxeratua. Astiasu'ko Iratzusta'k lenengoa irabaztearekin ez giñan arritu, lendik bagenekigun orren berri-ta.

Erri bakoitzak izaten du zaletasun berezia. Azkoiti'n da Arrasate'n, pelotarako. Orio'n, arraunerako. Leitza ta inguruetan, aizkorarako. Ta Astiasuarrai utzi pakean sega-kontuan.

Beste askoren artean, izen aundiko sega-joku bat, Migel Galartza berrobitarra ta Kandido Gaztañaga ibartarraren artean jokaturakoa da, gerra aurretik.

Bi orduko saio luzera probatu ziran, Iturriotz'ko belardi zoragarrietan, berrobitarra nagusi gelditzen zalarik. Mundu ontako lanak eginda, biak aldegin ziguten. Pakean bezate atsedean.

Galartza'ren aldetik gure aita zana sozio omen zan. Sarri entzun izan nizkion orduko istoriak. Dirua Gaztañaga'ren alde atera omen zan. Gurearen aldetik bazan naiko itxaropen, baña dirua palta jokatzeko.

Gure aita zanak eta bere lagun batek irurogeina duro irabazi omen zituzten. Pezeta oiek ere, bezperan saldutako txekor-diruak omen ziran.

Ala ere, soziedadeko gastuak ordaintzeko juxtu-juxtu iritxiak izan bear zuten. Galtzea gertatu izan balitz, izango ziran komeriak.

Gure aita zanak zionez, —au ez du iñork ukatuko—, sega-joku ori zikiñenetakoa da. Lanak bukatuta ere, ez baita jakiten zeñek irabazi dun, pixaketak bukatu arte. Lan ortan, berriz, nolako eskuak ibiltzen diran. Bakoitzak bere aldera tiratzen baidu.

Gure errian arrakasta aundia dun beste kirol bat, aizkorarena da. Baña esan leike, joku au

dalako, bi probintzi alkarren kontra ta setan bizi dirala. Ogei aizkol-apustutatik amasei, nappar eta gipuzkoarren baten artekoak ditugu.

Urruti gabe, oroitu Gartziarena'k, Arria, Korta ta Luxiaren kontra jokaturakoak; Bera-koetxea'k jokatu zitunak, Errekalde, Polipaso ta abarren aurka. Gaur, berriz, or darabilzkigu Mindegia, Arria ta Mendizabal, batean batek irabazi ta bestean besteak.

Aizkolariak dirala-ta, egurrak erdibitu bitez; baña ez Euskadi.

Amaika euskaldun etxeoandre bada negar ugari egiña, jokua dala bitarte. Erri bakoitzak bere alderdi on eta txarrak.

(El Diario Vasco, 1984-II-10)

PERRETXIKOAK

Udaberritik negu-sarrera arte sortzen zaigun landare au, guztiz maitatua degu. Lastima nai aña etzaigula sortzen askotan. Baña ez pentsa gure basoak eta belardiak antzuak ziranik ortan. Orain zapuztu bazaizkigu ere, gure basoak emankorrak izan dira.

Udaberriko ziza izango da usairik ederrena ta ixtimaziorik geien duna. Belardietan da karaitz tartean sortzen zaigun mokadu goxo au bear bezela tratatuko bagendu, askoz ugariago izango litzake ta urrearen preziorik ez luke egingo.

Eun metrotik eun metrora ziza-larreak dau den barrutiak ezagutzen ditugu; baña erri guztiak dakizkinak ta oiekin ez dago zer egiñik. Ziza jaio orduko atera bakarrik ez; aztarrikatu ta erabat zapuztuta uzten dute ain emankorra dan mutegia.

Ziza-larre bati probetxua ondo ateratzeko, aundi egin arte utzi egin bear zaio, ta gero laban

txorrotx batekin lurraren mugatik ebaki. Ori egiteko, norberak bakarrik dakina bear du, ordea, ta or dago koska.

Mendi-basarri bat zan, gaur utsik badago ere. Bertako maiztarrak, etxe ondoan zeukan ziza-larretik urteko errenta ordaintzeko aña ateratzen zula esan zigun. Ez da gutxi.

Ziza zoragarri oiek bukatu orduko, egualdiak laguntzen dula, ontoak eta gibel-urdiñak asten zaizkigu. Baña auentzako urte-sasoirik onena agoztuaren erdi aldetik asi ta otzak asi bitartea da. Gaueko otzak asi ezkerero, kontuz.

Gure gaztañari, pagadi ta ariztiak eman dute ugari. Izan ere, perretxikoak zotala ona ta garbia bear du. Piñua sartu zitzaigun arte, orbela biltzen zan gure basoetan da garbitasuna ona izan ortarako ere.

Gaur perretxiko-klase asko jaten du jendeak. Orain arte euskaldunak jan ditugunak, auek izan dira: udaberriko ziza, onto beltza eta zuria, gibel-urdiña, urritz-perretxikoa, zizoria ta kuletroa. Azkenengo au, oso bakan da leku jakiñetan ateratzen dana da.

Perretxiko-liburu bat artuta, guk txartzat genduzkenak jateko onak dirala irakurriko dezue. Ni ez nijoa liburuaren kontra. Nere konseju bat nai dunari, ordea, au esango nioke: Orain arte jan ditugun klaseakin jarraitzeko aurrera ere.

Urtero-urtero an edo emen izaten dira nalgaberen batzuk. Ildakoak ere gertatu izan dira.

Gaur, perretxiko-lekurik onenak Naparroa-

'ko basoetan dauzkagu. Izaten dute nork bixitatu. Bai orixe.

Donosti'ko Martutene auzoan bada soieda edo alkarte eder bat, *Txapel-aundi* deritzaiona. Urteko eguna udazken aldera ospatzen dute, pelota-partidu, bertsolari ta alkartasun-bazkari eder batekin amaitzen dala.

Urte batean, Arozamena zana ta idazten ari dan au giñan bertsolari. Pelotariak, berriz, Atano X, Andueza III. Karretero ta abar.

Atano III, ainbat urtean pelotako txapeldun izandakoa, bazkaldar gendun. Bagenekigun perretxiko-biltzalle amorratua zala. Galdera au egin nion:

–Perretxikoak janda, urtero izaten dira, ba, naigabeak, an ez bada emen.

Erantzuna:

–Bai, baña txarrak janda; ez onak janda.

Berak zionez, len aitatu ditudanetatik aparte etzun biltzen, da ala obe, nere iritzirako.

Perretxikoa eguneroko janaria balitz, ogia edo patata bezela, ez luke ixtimazio aundirik izango. Ugalmena etortzen danean, gogoz asten bagera ere, laister aspertzen gera. Gauz guztiak onak beren neurrian.

Udaberriko ziza
da maitatuena,
zenbaitek ainbat diru
ordaintzen duena.
Otordu galestia
ortik dagoena,
mendian saiatzea
guretzat onena.

Gero onto zuria
eta onto beltza,
gibel-urdiña ere
ez da aldrebesa,
kuletroa billatzen
ez dago erreza;
bakoitzak nai duana
orain egin beza.

(El Diario Vasco, 1984-II-15)

IÑAUTERIAK

Iñauteri edo karnabalak. Amaika xelebrikeri ta parregarrikeri egin arazten dizkiguten egunak.

Irurogei urte inguru ditun apaiz eta prailerik ez da izango, iñauterien kontra sermoirik egin gabekorik. Astelenez ta asteartez bezperak jarritakorik ere bada, gazte jenderik pestara ez joatearren. Gaur millaka gazte billatu litezke, bezperen berri ez dakitenak.

Ditaduraren mendetik erten giñanean ugaldu zitzaizkigun pesta-klase auk. Baña, bitartean, Tolosa bakarrik izango zan Gipuzkoa'n, oitura zarrari jarraitzen ziona, «Udaberriko pestak» izenarekin.

Amaika kontu esaten degu: ondo jaztea gauz ederra dala; errespetoan ibiltzea ere bai. Baña ajolik gabe ibiltzeko egunak etortzen zaizkigunean arrotzen gera geien. Adibidez, Iruña'ko San Permiñak trajea ta korbata jantzita ibilli

bearrekoak balira, ez luteke izango daukaten pamik mundu zabalean.

Neurri batean iñauteriak ere onak dirala esan bear. Alaitasuna ta umorea danori komeni zaizkigu. Bestela ere naiko goibeltasun bada gure lur ontan.

Pentsamentu au ere sarri datorkit gogora: Urte guztia ez ote zaigu iñauteri biurtu? Gaurko gazte askoren jantzi eta pintaketak, dantza-leku eta beren argi-jokoak, ibillera ta burugabekeriak, neska edo mutil diran ezin baiditugu ezagutu sarritan, jokaera auek danak ez al dira iñauterietarako aproposak?

Galtzaundi'ren bertsoak jarri zituna gaur begira balego, zer erretolika aterako ote luke? «Danok erotu gera» entzuten degu itzetik ortzera ta izango da zerbait.

Gauza guztiak beren neurrian dira onak; da neurri ortatik sekula baño urrutiago gabiltzala esango nuke.

Gizonak danak pekatariak generala pentsatzeak ere ez digu kalterik egingo.

Nik ezagutu nun aiton batek au zion sarri:

–Gizona zintzotzeko, edadea, edadea! Ez mixioak.

Beraz, zartzarora irixten bagera, izango degu egitazko Garizuma. Egitazko Pazkoa ere etorriko al zaigu noizbait.

Kontuak kontu, pakean da umoretsu pasa ditzagun aurtengo iñauteriak da aurrera.

Karteristak ere egin naiko dituzte berenak eta kontuz, irakurle. Gure patrikak ustutzeko ez degu laguntzaille oien bearrik. Ez orixe!

Iñauteri asten da
ostegun gizenez,
lenengo ondo ase
jan eta edanez.
Ondoren txaranga ta
danborradâ joanez,
«Galtzaundi» kantatuaz
sasoirik onenez.

Triste antzekoa da
berriz ostirala,
bezperako kontuak
oroitzen dirala.
«Plako» dauka izena,
egiz degu ala,
uste det lotarako
egun ona dala.

Arrotzeko eguna
degu larunbata,
etenik gabe dago
bulla ta zarata.
Jantzirik xelebrenak
soñean parata,
nabarmenkeriaren
zaleak gera-ta.

Martxoaren lauean
aurten iñauteri,
egin bearko dira
ainbat txorakeri.
Miñikan artu gabe
dantza ta kantari,

bizitza alaitzeko
ederra da ori.

Zezenak ere nola
diraden modako,
pesta-klase polita
bazkal ondorako.
Or gertatu izan da
estropozo pranko,
ankak ariñak obe
dira ortarako.

Astelen asteartez
pestari segira,
karteristen bildurrik
gabeak badira.
Auster egunarekin
askok erretira,
Pazko egunerako
sendatuko dira.

(El Diario Vasco, 1984-III-8)

IBILLALDI BAT

Azken urteetan ugaldu zaizkigun jeneroak, Soziedade edo Alkarteak dirala esan bear. Garai batean, erri aundietan bakarrik ziran. Gaur, berriz, auzorik txikienetan ere ikusi litezke. Ta, ondo daudela esanez, ez det uste pekaturik egiten dedanik, ain gera ortarakoak eta.

Bearbada etxeokandre askok ez dute ala esango, danon gogozkorik ez baita ezer mundu ontan.

Ori ala izanik, Berrobi'n ere badegu geurea, *Bide Ona* izenarekin bataiatua. Irurogei ta amar sozio gera, ta or egiten ditugu aparirik goxoenak eta mundu-konpontze onenak.

Ardo enbotellatua edo markakoa Errioja'ko bodega batetik ekartzen digute. Ez det izenik emango, nere eginkizuna propagandakoa ez data. Etxe onek konbidatu giñun egun eder bat bere bodegan igarotzera, mama gozoak edanez. Etsizagun damutu, arranek-ezik!

Urriaren 14'an joan giñan amabi laguneko

taldea. Aruntza iritxi giñanerako, zai zegon bertako zuzendaria. Oso ondo artu giñuzen. Ikusi gabe ez gendun utzi makinik eta zokorik. Argi ta garbi esan zigun zertarako zan bakoitza, lana nola egiten zun da abar.

Ura bodega ez, baña pabrika dala esango nuke nik. Amalau milloi litro ateratzeko modua ba omen daukate –urteko, jakiña–, berrogei lagunek lan egiñez. Ango makinari ta deposituak ikusgarriak dira. Ez daukate erdoi–bildurrik.

Galdera batzuk egin genizkion zuzendariari.
Bat:

–Orain berreun urte bezela ardoa egin edo gaur etxe ontan bezela, zer alde dauka kalidadean?

Erantzuna:

–Estudioari ta aurrerapenari ez dago kontra egiterik. Garbitasuna ta txukuntasuna da, berriz, danen nagusi. Lenagoko eran ardo on bat atera liteke. Baña emen askoz segurantzi geiago dago.

Ardo ona ateratzeko komenigarri omen da leku askotako maatsa nastea. Berak Logroño'koa, Araba'koa ta Naparro'koa nasten dituzte.

Jende asko ardo zarraren edo armiarmasarek dauzkan botill billa ibiltzen dala badakigu. Ala zion dalako zuzendari onek:

–Armiarma-sareak eta urte geiegiak ez dute ardorik ontzen. Ardo ona izango bada, ona bottillan sartu bear du, ta zein urtetakoa dan geiegi begiratu gabe probatu, ta orduan esan ona, erdi-ipurdikoa edo txarra dan.

Iru zapaldu-aldi ematen omen zaizkio maa-

tsari. Lenengotik sortzen dana, urrea omen da. Irugarrenetik, berriz, ez dago esan bearrik. Arentzako armiarma-sareak alperrik izango dira.

Azkenik, barridak zeuden lekua ikusi gendun. Amaika millako pilla zegon, bakoitza bereun da irurogei litrokin.

Ardo ona izango bada, derrior egon bear omen du barriketan. Iru urtean edukitzen dituzte, lau-bost illabetetik garbitu ta aldatuz batetik bestera. Ortarako ez omen dago aurrerapenik. Ori, orain eun urte bezela egiten dute.

Ordubi t'erdia baziran da bodegan bertako jan-gelalara inguratu giñan. Patatak txorizoa-kin da arkume-txuleta jarri zizkiguten. Mama gozotik, berriz, ez dago esan bearrik.

Ondorenean, bagendun umorea ta itz-jarioa. Zer zan ura? Bertso zar au sarri gogoratu zitzaidan:

Eran ezkeru negurriz
illa piztutzen du berriz.

Neurriz edaten zalla izan, ordea, ta ortatik gure komeriak.

Aurten oso maats-urte ona omen dute. Izan dezatela.

Etxe ortako ardoak akats bat daukate: garestiak dirala gu bezelakoak egunero edateko. Frantzi, Holanda ta beste leku askotara bialtzen dituzte ardo on oiek. Aietan ez dira merkeagoak izango.

Illunaren sarrera zan, etxeruntz abiatu giñanean, aztuko etzaigun egun bat pasata.

Ardo au probatu edo edateko gogoa egin bazaar, irakurle, atoz Berrobi'ko *Bide Ona* Alkartera, atea jo bildurrik gabe ta andik aurrera itzegingo degu.

Noizik eta bein komeni dira
orrelako ibiliak,
edo bestela guk nola jakin
Errioja'ko berriak?
Ondo artuak izan giñan da
kendu giñun egarriak,
neurritz ibiltzen gaiztoa da ta
ortik datoz komeriak.

Berrobi'n degun Alkarteari
Bide Ona deritzaio,
jan-edan ortxe egiten degu
bestetan baño lasaio.
Ezagutzeko gogoa berriz
iñori sortzen bazaar,
atea kas-kas jo dezala ta
pozik irikiko zaio.

(*El Diario Vasco*, 1984-III-25)

OÑATI

Agorraren 17'an, arratsaldeko seiretarako Oñati'ra joan bearrak giñan Kosme Lizaso ta biok. Auzo pranko badu erri onek. Oietako bat, polita gañera, Zañartu. An giñuzen geren egitekoak.

Ermita eder bat ere badaukate Gurutze Santuari eskeña, 1906'an zutitua bertako emakume alargun baten esku zabalez.

Santa Kruzetik urrengo larunbata zanez, zazpiretan meza santua, auzotarrak bertan ziralarik.

Apaizak, bere itzaldian, pasa berri degun uraldea gurutzarekin konparatu zun, da besteren miña gurea bezela artu bear gendula. Eskupekoa eskatu ere bai, erriaren naigabeak arintzeko.

Erri-otoitzean bina bertso kantatu giñuzen bertsolariak. Nereak onela ziran gutxi gorabeera:

Bi nagusiren morroi izan nai
aruntza eta onuntza,
o, Jaungoikoa, gaur entzun zazu
pekatarien izkuntza:
Denboraleak ekarri digu
uste gabeko gurutza,
iñoiz bada-ta premian gaude,
egin zaiguzu laguntza.

Oso txukunak ez gera jartzen
arrotzen geradenean,
uralde batek buru-makurka
jarri gaitu azkenean.
Maitetasunez esku emanda
saia gaitezen lanean,
da il ziranak gertatu bitez
betiko zorionean.

Meza ondoren, ermita ondoko gela batean
alkartasun-aparia, eun bat lagun bertan giñala-
rik, da Oñati'ko alkate jauna buru gendula.

Txistulari, soñu-jole ta bertsolari, bazan
umorea ta dantza. Bizi geran garai auetan, ez du
gutxi balio onelako alkartasun batek.

Danak ez dute nik bezela pentsatuko; baña
elizkizun batekin asten diran pestak, grazi apar-
ta dute neretzako.

Aurrera, Zañartuarrak, lege zarrean!

Amaika milla bizi-laguneko erri bat degu
Oñati. Badu obra ta etxe ederrik gure begien
gozamenerako.

Taller edo lantokiz ondo dabilela ematen
du. Terrenoz, berriz, bera da Gipuzkoa'ko aun-

diena. Nekazariak ere itxura-antzean biziko dira, piñua dala bitarte.

Gipuzkoa'n lenengo piñua sartzen asitakoak, Oñatiarrak dira. Beste leku askotan landare au aldatzen asterako, emen botatzen asiak zeuden. Aurrena dabillenak sarri arrapatzen du mokadurik onena, ta suerte ori izan zuten Txantxikutarrak.

Gaur ere ikusten dira sail ederrak. Gutxi balio dula, baña izanetik dago zerbait.

Arantzazu'ko Ama Birjiña bere lurretan dagolako, erri bixitatua da Oñati. Zenbat erromes igarotzen ote da urtean zear?

Amar-amaika urte izango nitun, gurasoakin lenengo joan nintzanean. Etzegon gaurko autobus-aukerik. Goizean goiz mugituta, Berrobi'tik Tolosa'ra Etxabe'ren autobusean. Emen trenean sartu ta Brinkola'raño. Ango geltokian zai genduzkan gasojenoakin ibiltzen ziran kamioi zar batzuk. Auetan Arantzazu'raño. Itzulzerakoan berdin. Geroztik, erosoago joan-ettorri pranko egiña nago.

«Oñati'tik Arantzazu'ra gazteak oñez» ibilaldi aiek ere pamatuak izaten ziran, ba. Amabi milla gazte alajañetan, bidean beren aitortzak egiñez. Asko ta asko anka-utsik. Bederatzi kilometroko tartea izan arren, asko konturatu gabe iristen giñan Amaren ondora.

Politika zala ta etzala, bukatu ziran martxa aiek. Nere iritiz, orduantxe asi zan euskaldun gazteria Elizatik aldentzen.

Elorri gañean dagonak, lagun deigula berriz ere arrastoan sartzen.

Azken urteetan, Oñati'ra joaten naizen ba-koitzean, utsune aundi bat sentitzen det. Zer dala-ta, galdetuko dezute.

Askotan entzuten dana, soldaduzkan egiten dirala lagunik onenak, da ez da gezurra. Nere lagunik onenetako bat ere, Burgos'en soldadu geundela egindako oñatiarra zan: Fidel Erle zana.

Orain sei urte, kamioko ezbearrez Madrid aldean il zan. Alguztidunak betiko zorionean gorde dezala.

Oñati'ra joaten bagiñan, bera izango zan gidari. Berdin Urbia'n. Ez gendun ezeren paltik izango. Ez orixe. Aren umorea, berriz, ortik onerakoa. Ordu gozo pranko igaro gendun.

Euskal amak ume eder asko egingo zuten. Oietako bat Fidel zana. Neretzat iñork ezin bete berak utzi zun utsuna.

(El Diario Vasco, 1984-III-28)

GAU-ESKOLAK

Berrobi'ko istorian pusketa aundi bat gau-eskolak artzen dute. Idazten ari dan au ta bere lagunak izango dira azkena ibiliak, 1949'an, Don Rikardo zanarekin. Gaur ere, gure erriko zarretan da ain zar ez diranetan, sarri entzun liteke onoko au:

-Gau-eskolatik aterata, ura egin genin. Gau-eskolatik ertenda, aruntza edo beste artara joan giñun.

Da abar. Negu-partean-da, illuntzeko bederatzietan sartzen giñan erretore-etxean, ordu-bete igarotzeko. An zintzo, baña ertendakoan komeriak. Amasei urte inguru ta illuna, edozein biurrikeri egiteko ere lagun aproposak.

Basarriko bizimoduan ere estuasun aundirik ez lanerako. Etzan nai orduko etortzen eskola ori asteko garaia. Mutillentzat bakarrik izaten zan. Orduan neskak illunari errespeto gogorra zioten.

Oneraño ez det gauz berririk jarri, irakurle. Beste erri askotan ere orrelako zerbait gertatuko zan.

Berrobi'n jaio zan, ordea, aztutzea merezi ez dun gizon bat. Jose Mari Goikoetxea bere izen-abizenak. Jaun oni esker izan ziran Berrobi'ko gau-eskolak. 1917'ko azaroaren 25'an il zan, bera jaio zan errian. Pakean beza atsedan.

Orduko beste asko bezela, gaztetan Argentina'ra joan zan bizimoduari arpegi ematera, seguru asko lana gogor egiñez, gure indianoa. Garai artan, Amerika'ra joan ezkerro, etzan gutxiago esperoko.

Azken urteetan, euskal mutillak Argentina'ra eramaten ibilli zan. Orregatik, oraindik Berrobi'n *Pasajero* izenarekin ezagutzen da. Bartzuk soldadu igesi joango ziran, besteak mundu berria probatu naiean, danak diru-ametsetan. Gizon onek ez omen zitun itxasoz pasa bakarrik egiten. Baita an lana billatu ere.

Ikusten zitun gure mutillak zer motz zijozten batere eskolik gabe mundu zabalera. Ortik sortuko zitzaion gogoa, egin zun testamentua egiteko. Berrobi'ko mutil gazteak negu-partean gau-eskola izan zezaten, amar milla pezeta utzi zitun. Auen interesakin bete bear zan eginkizun ori.

Gaur badakigu diru ori ezertarako lain ez dala. Baña, orain irurogei ta sei urte, erriko basarririk onena erosiko zan. Bizimoduaren gorakoarengatik gizon aren egintza ezereztu bada ere, ezin kenduko diogu bere meriturik.

Berrobotarrak noizbait oroituko al gera, gi-

zon ura bear bezela eskertzeko! Iñork ezagutu
nai badu, bere argazkia Berrobi'ko Udaletxean
dago.

Orain dala urte-mordoska bat, Uztapide za-
nari, San Agustinetan, gai orixe jarri nion. Ara
nola kantatu zun:

Don Jose Mari Goikoetxea onek
jarri zuan gau-eskola,
dirua dadukaten guztiak
egin bear luteke ola.
Esaten dute Euskalerrria
atzeratua dagola,
esango nuke olako askoz
gaur obetogo zegola.

Amaika istillu sortzen dun dirua, ta asiera
artan ere ba omen ziran ederrak. Apaiza ta
maistra asi ziran sokatiran, eskola ori batek
eman nai ta besteak eman nai. Ortik pentsatu
amar milla pezetaren interesak bazirala zerbait.
Azkenean, apaizaren alde joan omen zan auzia.

Azkenengo gau-eskolak eman zitun erretore
zanak, gurasoetzaz itzegitean orru ederrak ate-
ra zitun, umeak eskolara bialtzeko esanez. Do-
terik onena eskola zala; tristea zala soldadu joan
da etxerako karta lagunari egin arazi bearra; ta,
artzen zunean, lenengo lagunak irakurri bearra.

Ernio mendia añako egiak. Gaur ez dago
alako itzaldiaren bearrik. Ez-ta, garai artan be-
zela, gau-eskola premirik ere, jakiteak mugarik
ez duan arren. Bizitzaren ardatzak ekarri ditun
aldaketak.

Asko bezela gazte zalarik
Amerika'ra joanda,
aberastera iritxi're bai
mutil zintzoa izanda.
Berari esker malla batera
ni ere igo nintzan-da,
mundutik joan zan bere erriai
erregali bat emanda,
eskolak zenbat balio zuan
ondo konturatu zan-da.

Ikusten zitun gure gazteak
eskolik gabe arlote,
ta Jose Mari *Pasajeroai*
pena ematen diote.
Mundua korritutzeko ere
gauza oberik bai ote?
Euskadi obetogo gendula
askok aitortzen digute,
izan ditugun aberats danak
ola jokatu balute.

(*El Diario Vasco*, 1984-III-30)

ZUGAITZAK

Pasai'ko kaiean-edo kamionen batek enbor ikusgarriak daramazkila ikusten badegu, ago zabalka gelditzen gera ta bereala onelako izketak sortzen zaizkigu:

–Oiek dituk egurrak, oiek. Guretan ez bezelako basoak badituk nunbait ere. Emen etzegok orrelakorik. Guinea alde ori ikusiko nitek gus-tora.

Ta abar. Izan ere, gizonaren gorakoa duten zerzeneko enborrak ikusten baidira.

Gure Gipuzko ontan, berriz, pausotik pausora piñu insinisa daukagunean, bestetan ere olaxe bear ote dun pentsatzen degu.

Egia da Euskalerrian zugaitz banaka batzuk izugarriak dauzkagula. Adibidez, Naparroa'n, ni bizi naizen erri ontatik urruti gabe dagon Leitza'n.

Piñua dala bitarte, beste pentsamentu bat ere nagusitu da guregan: atariko baratza bezela

artu degula basoa. «Nik sartu landarea ta nik aprobetxatu». Ta, zugaitzari gerri-jira lodituko bazaio, utzi egin bear zaio kupirik gabe, zeñek gozatuko dun pentsamentuak alde bat utzita.

Len esandako lekuetan ikusten ditugun enbor aundi oiek ez dira gauetik goizera azitakoak. Ez orixe.

Zenbaitek uste du gure lur au ez dala orrelako aitonak azitzeko gai, ta ori ez da egia.

Badakigu garai bateko sanidaderik ez dago-la. (Berrobi ta inguruai begiratuta ari naiz idazten.) Gaztain, intxaur ta zumarrondoak gaitzak jota daude. Oiek aldatzea alper lana deritzait. Sendabidea baduten edo ez, ori ni baño jakintsuagoak esan bearko dute.

Badago, ordea, zugaitz bat gure lurrian, gaitz-izpirik gabea ta erruz irabazten duna: pargoa. Landare onek arritzeko moduan irabazten du ta Euskalerriko zugaitz ederrena bera da nere iritziz.

Konturatzen al zera, irakurle, gaur piñudi dauzkagun mendi guztiak pagoakin baleude, zer edertasun da aberastasun izango genduken? Perretxikutan bakarrik etekin aundia emango liguteke. Ta ori ez da eziñezkoa.

Oraindik orain, gure erri ontatik kilometro batera, Berastegi'ko lurretan ain zuzen, pagolizar eder bat bota digute. Merezi du bere neurriak emen jartzea. Ondotik lau metrora, ia iru metroko gerri-jira zeukan. Da, jabeak esan zigunez, berrogei ta amar urte inguru zitun.

Beraz, aizkolarientzat kanako enbor batzuk jarri zitezken. Etzun txantxetako irabazia ere

izan. Kukuak zenbat aldiz kantatu ote zun bere gañean?

Orain bosteun edo milla urtetik onuntz, erruz jetxiak izango gera baso-kontuan. Bestela, begiratu gure eliz, udaletxe ta baserri askok dauzkaten zurajeai. Oien abeak basoan ziranean, arrigarrizko aritzak izango ziran, da oso urruti gabe gañera.

Jakintsu askok diotenez, gaur bertatik asi bear genduke basoa jartzen, biarko utzi gabe. Munduaren eta gizakiaren osasunerako oso bearrezkoa omen degu-ta.

Egia da munduan baso izugarriak badaudela. Amerika'ra joan giñanean, Brasil'ko lurraldearen goitik goazela, azkenik gabeko basoak nabaitzen genitun. Katagorri eta gañerako piztiak emen baño lasaiago ibilliko dira seguru asko.

Eusko Jaurlaritzak edo Diputazioak alegin guztiak egin bear lituzteke gure basoetan pagoa eta aritza ugaldu dedin. Guk nai izan ezkeru, gure ondorengoentzako aberastasun ederra jarri genezake ta ondo eskertuak izango giñake. «Ondorengoak egin dezatela berak» esatea, arrazoi ariña deritzait. Guk daukagun guztia gerok egin bagendu bezela...

Urrutiko enborrez
gaude arrituta,
gure basoak berriz
daude urrituta.
Jende asko jarri da
zerbait larrituta,

mendiak nai dituzte
udaberrituta,
piñu beltzak mendean
artuak gaitu-ta

Emen nai giñuzke guk
aritz eta pago,
ortatikan aukera
bagendun lenago.
Baratzako jokera
ugaldua dago,
ondorenakin pentsa
dezagun geiago,
bestela esker onik
guretzat ez dago.

(El Diario Vasco, 198-IV-19)

EUSKALDUNEN BIZIMODUAK

Euskaldunen bizimoduak arrantzatik eta eizetik izango ziran antziña artan. Geroxeago asiko ziran ganaduari probetxua ateratzen, da beiganadua izango zan seguru asko. Bestela, begiratu *belarra* izenari. *Bei-larra*, *bei-larrea* esan nai du. Beiaren ondorengoak izango ditugu ardiak eta artzaiak.

Gure mendietako basarri geienak ganaduborda edo artzai-txabola izandakoak dira. Noizbait, lurrak landuta etekin geiago aterako zutela pentsatuko zuten. Baña orrekin, kosetxak gordetzeko ta abar, estalpe txikiegiak gertatu zitzaizkien, da orduan asi ziran bordak aunditzen da etxe-bizitza prantatzen.

Gaurko basarri askotan nabarmen ikusten da aunditze ori. Bordaren paret-ixkiñak eta ateleioetako arri landuak dira testigu. Geroztik egindako lana arri pobreagoarekin dago.

Bizimodu berri ortan bizitzen jarritako etxeari, *basarria* deitzen zitzaion. Basoak ugari

izango ziranez, *basoko erria* esan nai du, ta ori izan da Euskalerrriaren oñarririk sendoena ta gure egunak arte iraun duena.

Azkenengo berrogei urteetan, ordea, industria gallendu zaigu danen gañetik; da esan zitekean, garai batean, Euskalerrri guztia tximini luzez bete bear zala, zugaitz eta fruta-arbola asko kontaminazioarekin igartzeraño. Adibidez, gure erri Berrobi'n. Ibaietako arraiak, berriz, ixildu nadin...

Nekazaritzan da artzantzan lan egitea, berriz, bajeza zan. Ortik basarriaren ondamendia.

Eskallerak gorako ta beerako dirala dio esaera zarrak; da ain indartsu zetorren industriura ara krisisean da zutik egon eziñik, jende berriarentzat atek itxi ta barrenean dauden asko kanpora bialdu naiean.

Bizi bear onek komeriak ditu-ta, utsik gelditu ziran basarri ta b'orda asko erosi ta ganaduak jartzen berriz jendea. Baita piñudiak kendu ta larreak jartzen ere.

Garai batean bezela lurrak landuz arto ta gari-sallak ereiten ez gera asiko noski; baña gure mendiak larre-ganaduz beteta ikusteak ez niñuke batere arrituko.

Len aitaturako industri-giroak ekarri zigun egunean ordu jakiñetan lan egiteko gogoa ta ain erloju-maiteak izatea. Baña orrelako kezkarik gabe gure aurrekoak nekatu ziran.

Zenbat lan mendietako barrutiak paretaz ixten, zenbat azaki-zulo ta abar egin zituzten ikusteko, ez dago urrutira joan bearrik.

Euskaldunak badegu izen eder bat: *auzo-*

lana. Lan aundiren bat egin bear zanean, ala jokatuko ziran. Baña beren bizibidean bakar-zaleak ziran. Bestela, etzituzten ainbat itxitura ta muga jarriko.

Alderdi auetatik zebillen amerikano bati, bein au entzun nion:

–Emen bi edo iru sozio jartzen badira, be-realaxe asarretzen dira. Baña an sozioak bizi guztian irauten dute askotan.

Orduko etxe-bizitza
izango zan aitez,
esnatu beariko zan
goizean txit goizez,
jana ekarritzeko
arrantzaz ta eizez,
sabelikan ez baita
kontentatzen aizez.

Beiak lenengo eta
ondorenen ardiz,
bordak eta txabolak
altxaturik arriz;
oroitu ziranean
lurreko janariz,
Euskalerrria ordun
jantzi zan basarriz.

Basarriak eman du
frutua ugari,
nola pamili eta
lurreko janari,
euskaldunak gogotsu
ekiñez lanari,

erriaren ardatza
zor zaio berari.

Industri-giro ori
indartzen asi zan,
basarriko jendea
kalera jetxi zan.
Mudantza asko dira
gizonan bizitzan,
segurantzzi osorik
iñun e ez izan.

Orain industri ori
kolokan jarri da,
ta kaleko jendea
mendira begira.
Lengo arrokeriak
bukatuak dira,
al duanak joan bear
al duan tokira.

(El Diario Vasco, 24 abril 1984)

ARTZAIAK

Euskalerriko ganadu-zaleetan sail aundi bat betetzen dutenak, artzaiak dira.

Orain berrogei urte, eun buru inguruko artaldeak ziran geienak Euskalerrian. Gaur baliteke artzai gutxiago izatea; baña ardi geiago izatearekin ez nintzake batere arrituko, orain irureun da lareun buruko artalde asko dago-ta.

Artzantzarako ere jaio egin bear du, beste gauz askotarako bezela. Ezagutzen ditut artzaiak, beste ezerengatik beren bizitza aldatuko ez lutekenak. Ez pentsa beti bizi eroso izaten dutenik, batez ere arkume jaiotzeko garaian da abar.

Ganaduakin dabillanak, berriz, ez du jai askorik. Ateak itxita ez baidago aldegiterik.

Bizi guztia artzai daramakin adiskide bati sarri entzun izan diot: sasoirik onenean ere etzula ardia baño gauza maiteagorik. Ez neska gazterik ta ez besterik.

Ernani'ko kaleetan ere egokitu izan zaigu,

Urbia'n artzai zebillen amairu urteko mutiko bat. Berak zionez, illabete batzuk bazeramazkin parienteen etxean eskola ikasiz. Geiago etzala Urbia'ra artzai joango esan nionean, etzan gozoa jarri. Onela zion:

–Ni Urbia'ra? Bai pozik asko! Nai orduko ez da etorriko joateko eguna. Ni kale zulo auetan aspertua nago. Gu an oso kontentu bizi gera. Anaia dabil orain ardiakin. Emendik nijoanean, arentzat liburu batzuk eraman bear ditut. Arek ere ikasi dezala. Ta, biok alkarri lagunduz, iñoren inbiririk gabe biziko gera.

Ardiak salduta diru-pil ederra artuko lutekela esan nionean, erantzuna:

–Ardiak saldu? Ez munduko urre ta zillarrengatik.

Arritu nintzan mutiko arekin. Danetik jaiotzen nunbait Jaunaren mutegian.

Artzaiai adarra jotzen edo illea artzen etzaitzez asi, irakurle, parregarri geldituko zera-ta. Mendiko aize garbiakin arnasten dira ta buru argikoak dituzu geienak.

Artzai-erri batean giñan bertsoara joanda. Bazkaltzen bagendun artzai bat ere. Gazta itxurazkorik-edo al zeukan galdetu nionean, azkar erantzun zidan:

–Erregalatzeko gazta oiek oso onak egiten ditugu. Saltzeko, berriz, egiñalak eginda ezin onik egin.

Pernando Amezketarrak ere etzun arrazoi egokiagorik emango.

Aberats bati zenbat diru dun galdetzea bezela da, artzai bati zenbat ardi dauzkan galdetzea.

Bosteun buruko artaldea baldin badauka ere, onela erantzungo dizu:

–Ale batzuk badia.

Edo:

–Banaka batzuk or dia.

Jende asko bizi da artzaien ondasunen inbiritz. Baña kaleko jendeak artzaien bizimodua egingo balute, artzai askok baño diru geiago izango luteke. Ondo bizi ta dirua sobratu, geienontzat eziñezkoa izango da.

Ganadu-zale auek izan zuten beren larrialdia. Dirudun guztien ametsa ere terrenoak erosi ta piñua sartzea zan. Ori etsaia izan, berriz, ardientzat. Gauzak aldatu dira, ordea, ta gaur edozein basarritan ardi-mordoska ikusten da.

Bestetik, etekin-klase asko ditu ardiak: arkume, gazta, esne, ille, larru, aragi ta abar.

Naparro'ko apaiz batek basarritar bati au esan omen zion:

–Ebanjelioak ateratzea on da artasoro ona izateko.

Basarritarrak:

–Artasoro ona izateko, ardien pikorra ere ez da txarra.

Txakur on bat da artzaiak izan lezaken lagunik onena. Morroi batek eta biak egin ezin lezazken lanak, onek egingo dizkio, oso soldata txikiarekin gañera. Ikusi besterik ez dago, Oñati'n urtero egiten dan txapelketa. Nere iritziz, zakur auek ez dute preziorik.

Artzaien etsairik aundiena, berriz, ganaduzale guztiena bezela, negua da. Azkenengo or-

tan ere, lo asko egin gabe ibiliko ziran bakarren batzuk.

Baña badira beste etsai batzuk ere: mendizale izeneko oiek. Ardiai zintzarriak ostu, txabolako atea puskatu ta bazter guztiak narrasten dabilzan oiek, ez dute izenik eta beren zigorra merezi dute. Ainbeste arkume, gazta ta esne gozo sortzen dizkiguten gizon umil auek, merezi dute tratamentu ohea. Bai orixe!

Mendirik-mendi ortxe dabilta
berdin igande ta aste,
arkume eta gazta ederrez
sarri asetzen gaituzte.
Udaran ondo, baña neguan
dute ainbat buruauste,
iñor bada-ta gure artzaiak
maitatu bear giñuzke.

(El Diario Vasco, 1984-V-13)

SAN ISIDRO EGUNA

Bertsotan asi nintzan ezkerro, egun àu etxean pasa gabea izango naiz, ta beste bertsolariai ere orixe bera gertatuko zitzaien. Egia da garai batetik asko gutxitu dirala basarritarrak. Baña, zorionez, aurrerako bidean ere ez dira gutxi ikusten, kalean ere ez baita berriketarik.

Aurtengo ontan, Izazkun'go gallur politean giñan. Tolosa'ko ta inguruko nekazariak giñuzen lagun. Berreun paseak guztitara. Tolosa'ko sindikatuko lendakariak esan zigunez, askoz geiago bilduko ziran, danentzat lekurik izan bazan.

Ama Birjiñaren ermita polit bat dagolako, leku bixitatua da Izazkun. Arritzekoa ez danez, bi ostatu eder ere badaude. Errezoakin bakarrik ez baigera konformatzen euskaldunak.

Mendigoizale ariñentzat, berriz, emendik dago Uzturre'rako bidea. Bere gañean dagon gurutz zoragarria makiña batek besarkatzen dute. Arrese tolosar olerkari pamatuak zion bezela:

Mendi gañean beso zabalik
zauden gurutze lazřana.

Esan bezela, billera zoragarria bazkaltzen asi giñanekoa, Tolosa'ko agintari ta elizgizonak buru zirala. Bazkalondoa, berriz, ohea. Lizartza'ko Kasiano ta biok saiatu giñan soñu ta bertso. Erri askotako plazetan bazkal aurretik kantatzea aiñakoa bazan ura.

Izazkun'go lanak eginda, gure Berrobi'ko txokora etorri giñan. Emengo basarritarrak, illuntzeko meza ondoren aparria zeukaten bertako ostatuan.

Bertsolariak gauerako asko ontzen omen gera. Baña bai soñujoleak ere. Gure Kasianorekin etzan giro, bein kafea artu zunean. Zer zan ura? Orduan etxera joatea, kartzelara joatea zala pentsatzen gendun.

Gauz batek poztu niñun geien, bai Izazkun'en da bai Berrobi'n: basarriko nagusi jaunak beren etxeoandre ta guzti zirala. Bazan ordua emakume jator auek aintzakotzat artzeko.

Izan zan garai bat, basarrira ezkondu nai zun neska billatzea baño, soroan urrea billatzea errezagoa zana. Izan ere, garai artako basarriko etxeoandrearen bizimodua ikusita, nor ezkonduko zan ba? Klausurako konbentu batean monja sartzeko aiñako bokazioa bear zun. Da ez dakit bera ez ote zan ohea.

Gogoan daukat, gure errian osaba batek monja zijoan illoba bati esan ziona. Illobak zerua irabaztera ta anima salbatzera zijoala esan omen zion, da osabak:

-Zerua irabazteko ta anima salbatzeko, basarri txar batera ezkondu adi, amar-amabi bat ume egin da ikusiko den nola irabaziko ditun ik esandako oiek.

Gaur gauzak aldatzen dijoaz, ordea, zorionez. Donostiko Bulebarrean bizi dan etxekoandrea ta mendi-basarri batean bizi dana, alde aundirik gabe ikusiko dituzu askotan, irakurle; ta alaxe bear ere.

Eusko Jaurlaritzak badauzka laguntza batzuk *Monumento Nacional* da orrelakoak gordetzeko ta zaintzeko. Euskalerriko pitxirik nagusienak basarriak dirala esango nuke, ta alik eta ondoena zaintzen danok alegindu bear genduke. Iñoiz galduko balira, Euskalerritari ere arnasa galduko litzaioke, ta il-kanpaiak laister izango lirake.

San Isidro madriltarra zala-ta, zenbaitentzat ez da graziko. Madril'goa izan edo nundinaiko izan, emen laguntzalleak bear ditugu, ta danak ertengo gera irabazian.

Garai batean ematen zuan
danak ustuko zirala,
aitortu bear kaletar gosez
asko txoratu giñala.
Nabarmen dago azken urtetan
gauzak aldatu dirala,
esan liteke kalea zer dan
kontura erori gerala,
ikusit baina bertaratuta
paradisoa ez dala.

Mendi aldea beti izan da
olerkari onaren gai,
edertasun ura ikusita
indarberritzen da alai.
Sagardo ori zoragarria,
txorizo, arrautz ta urdai,
danen gañetik irabazia,
bearrezkoa degu bai,
itz eder eta kontu utsakin
iñork ez du nekatu nai.


(El Diario Vasco, 1984-V-29)

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

(101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. Ezkioko ta Segurako itxuak.
(*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
(*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
117-118. *Balendin Erbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
123-124-125. *A. Zavala*: Zapiain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.

135. A. Zavala: Jaioak bizi nai.
136. A. Zavala: Noe'ren ontzia.
- 137-138. Ataño: Txantxangorri kantaria.
139. A. Zavala: Soldaduzkako bertsoak.
140. A. Zavala: Nekazariak bai miseriak.
141. Bertsolariak: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. A. Zavala: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. J.J. Irazusta: Nork bere bidea (I). (Aitua).
144. J.J. Irazusta: Nork bere bidea (II). (Aitua).
145. J.J. Irazusta: Nork bere bidea (III). (Aitua).
146. A. Zavala: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. Ataño: Txori. (Aitua).
148. I. Alkain, A. Zavala: Gerrateko ibillerak (I).
149. I. Alkain, A. Zavala: Gerrateko ibillerak (II).
150. I. Alkain, A. Zavala: Gerrateko ibillerak (III).
151. Mattin Treku: Etxe xokotik kantari.
152. Xalbador: Herria gogoan. (Aitua).
153. J.K. Zapiain, Ataño: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. A. Zavala: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. A. Zavala: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. F. Artola, Bordari, R. Artola: Aritz beraren adarrak.
157. Elkar lanean: Lexoti bertsolaria.
158. Mari Treku: Mattin, nere gizona.
159. Txomin Garmendia: Denbora pasa.
160. Txomin Garmendia: Bizitzaren arian.
161. A. Zavala: Kuba'ko gerra.
162. J.M. Arrieta: Nere ondar alea. (Aitua).
163. J.C. Arrosagaray: California-tik kantuz.
164. A. Zavala: Mixioetako bertsoak (I).
165. A. Zavala: Mixioetako bertsoak (II).
166. M. Manterola: Lore apal bat.
167. J.M. Lertxundi: Baso tarteko oiua.
168. P. Lazkano, A. Zavala: Tiro tartean bertsoan.
169. Basarri: Kezka-giroan.
170. Txomin Garmendia: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. Txomin Garmendia: Bertsolari kurpilla.
172. Sebastian Salaberria: Nere soroko emaitzak.
173. I. Olea: Otemotxeko arnasa.
174. A. Zavala: Kristaubidea bertsoan (I).
175. A. Zavala: Kristaubidea bertsoan (II).
176. A. Zavala: Ameriketako bertsoak.
177. Txomin Garmendia: Erririk-erri.



AUSPOA
LIBURUTEGIA